

GRADUA:

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua

2021/2022 ikasturtea

**GIZARTE EKONOMIA ERALDATZAILEA,
EKONOMIA FEMINISTA ETA EKONOMIA
EKOLOGIKOA EGUNGO SISTEMA
EKONOMIKOAREN ALTERNATIBA GISA**

Egilea: Nerea Abrisketa Diaz

Zuzendaria: Yolanda Jubeto Ruiz

Bilbo, 2022ko ekainaren 20a

Aurkibidea

0. Sarrera	5
1. Testuinguruaren analisia	8
1.1. Sistema ekonomiko kapitalista	8
1.2. Kapitalismo patriarkala	11
1.2.1. Zapalkuntza hirukoitza	12
1.2.2. Sexuaren araberako lan banaketa	12
1.3. Erreproduzio-krisia	13
2. Gizarte Ekonomia Eraldatzailea	14
2.1. Ekonomia soziala	14
2.1.1. Jatorria eta bilakaera historikoa	14
2.1.2. Ezaugarri nagusiak	15
2.1.3. Ekonomia sozialeko erakundeak	16
2.2. Ekonomia solidarioa	18
2.2.1. Ekonomia solidarioaren korrante ezberdinak	19
3. Ekonomia Feminista	19
3.1. Ekonomia feministaren sorrera eta hedapena	19
3.2. Ekonomiaren berdefinizioarako EF-ren proposamenak	21
4. Ekonomia Ekologikoa	25
4.1. Ekonomia ekologikoari hurbilketa planetaren mugetatik abiatuz	25
4.2. Ekofeminismoa: ekologismoa ikuspegi feminista batetik landuz	27
4.3. Bizitzari eusteko proposamenak	28
5. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea	31
5.1. Ezaugarri nagusiak	32
5.2. Ekonomia solidarioaren printzipioen irakurketa	32
6. Ondorioak	37
Bibliografia	40

Irudi eta taulen aurkibidea

IRUDIAK

Irudia 1: 2020. urteko mundu mailako aberastasunaren piramidea	9
Irudia 2: Lanaren zirkuitu ekonomikoa	21
Irudia 3: Ekonomiaren zirkuitu naturala	29

TAULAK

Taula 1: Ekonomia sozialaren erakundeak	17
-----------------------------------------------	----

Akronimo eta siglen zerrenda

BPG: Barne Produktu Gordina

CEPES: Confederación Empresarial Española de la Economía Social

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EE: Ekonomia Ekologikoa

EF: Ekonomia Feminista

ES: Ekonomia Solidarioa

GEE: Gizarte Ekonomia Eraldatzailea

REAS: Red de Economía Alternativa y Solidaria

Laburpena

Lan honetan ekonomia eta enpresa fakultatean lantzen ez diren hiru ekonomia eredu alternatibo landuko dira. Ekonomiaren ikuspuntu heterodoxo honetatik abiatuz, sistema kapitalistari aurre egingo dion proposamen integral bat planteatzea da helburu nagusia. Honetarako, egun bizi dugun erreprodukzio-krisiaren testuingurutik abiatuko gara, genero ikuspegia eta ikuspegi ekologikoa analisi honetan barneratuz. Ondoren, hiru eredu ekonomiko alternatiboen banakako lanketa egingo da, eta bertan hauen ezaugarri nagusiak eta proposatzen dituzten neurriak ezagutuko ditugu. Behin analisi hau eginda, ekonomia solidarioaren printzipioen analisi bat egingo da, betiere genero ikuspegia eta ikuspegi ekologikoa barneratuz. Era honetan, eredu ekonomiko integral bat lortzea da gure helburua, eta aurretik landutako hiru ereduak uztartu egiten direla frogatu. Azkenik, lan honen ondorio nagusiak aipatuko dira, sistema ekonomiko alternatibo hau martxan jartzeko erronka nagusiak barneratuz.

0. Sarrera

Gaiaren aurkezpena

Nabaria da gaur egun krisi multidimentsional baten aurrean aurkitzen garela, ez soilik zentzu ekonomiko edo finantzarioan, baizik eta zentzu sozialean ere. Gizartearen arteko ezberdintasunak, lanaren prekarizazioa, bazterketa soziala, bidegabekeria eta zaintza lanek jasaten ari duten krisia, krisi sozialaren edo erreprodukzio-krisiaren isla dira. Krisi soziala, edo erreprodukzio-krisia, aipatzean argi izan behar dugu sistema ekonomiko kapitalistaren eta gizartearen arteko harreman estrukturalari egiten diogula erreferentzia (Quiroga, 2010). Hau da, ez da krisi koiuntural bat, askotan entzuten dugun bezala, sistema kapitalista beraren krisi estruktural bat baizik.

Honen aurrean, sistema liberalari aurre egiten dioten eta alternatiba gisa aurkezten diren gero eta eredu kritiko gehiago daude. Horietako bat, lan honetan jorratuko dugun gizarte ekonomia eraldatzailea¹ da. Eredu ekonomiko honek ekonomia egiteko beste modu bat aurkezten du, premia sozialean oinarritzen dena eta jarduera ekonomikoaren erdigunean pertsonak jartzen dituena. Sistema kapitalista merkatuen logika lehiakorrean eta mozkinen maximizazioan oinarritzen den bitartean, GEE-k kooperazioan, justizian eta elkartasunean oinarritzen den beste ekonomia eredu bat proposatzen du. Ekonomia eraldatzen duen eredu honen helburu nagusia gizarte osoarentzat onuraduna den sistema bat eraikitzea da (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2012).

Bestalde, ekonomia feminista² aurkitzen dugu, egungo sistema ekonomiko patriarkalari aurre egiteko sistema gisa aurkezten dena. Argi izan behar dugu ekonomia ez dela generoarekiko neutrala, eta gizartean emakume zein gizonen egokitzen zaien rol ezberdinak sistema ekonomikoan ere eragina duen hierarkizazio sozial bat sortzen dutela. Hortaz, ezin da ukatu generoak sistema ekonomikoan duen eragina, honen adibide izan daiteke generoak lanaren banaketan, soldatetan edota lan-baldintzetan sortzen dituen emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak (Carrasco, 2017). Aipatutako guztia erreprodukzio-krisiaren isla da eta EF-k funtsezko zeregina du krisi sistematiko eta estruktural honi aurre egiteko.

Azkenik, ekonomia ekologikoa³ ere aztertuko da, egun krisi ekologiko baten baitan gaudela ezin delako ukatu. Naturaren menpe gaude, gizakiaren biziraupenerako natura ezinbestekoa baita. Kapitalismo neoliberalak mendekotasun hauek ukatu egiten ditu, hazkunde ekonomiko mugagabea helburutzat hartzen du eta ez dio axola baliabide mugatuak agortzen baditu. Beraz, lur planetaren baliabideen mugak aitortuz, EE-ren eta ekofeminismoaren bitartez ere, kapitalismo

¹ GEE aurrerantzean

² EF aurrerantzean

³ EE aurrerantzean

berdearen aurrean ingurumena zaintzen duen sistema ekonomiko bat beharrezkoa dela plazaratuko da (Herrero, 2012).

Beraz, kontuan izanda sistema liberalak kapitala erreskatatzeko gizartearen bizitzak arriskuan jartzen dituela, honi aurre egiteko bizitzak erdigunean jartzen dituen eredu integral bat behar dugu. Hortik sortzen da GEE, EF eta EE era bateratuan lantzearen ideia. Hiru eredu kritiko hauen xede nagusiak bat datoz, hala nola, giza beharrezkoen asetzea, hierarkia ekonomiko zapaltzaileak deseraikitzea, giza potentziala garatzea, eta uneoro, bizitzak erdigunean jartzea. Baina EF-k eta EE-k GEE-k gehiegi lantzen ez dituen sistema ekonomikoaren beste aspektu batzuk lantzen ditu, eta hor dago hirur eredu hauek batera aztertzearen garrantzia. Ondorioz, lan honetan zehar oinarritzat hartuko dugun ereduak GEE izango da, EF genero auzian gehiago sakontzeko asmotan erabiliko da eta EE-ren bitartez auzi ekologikoa landuko dugu ere.

Lanaren helburuak

Lan honen helburu nagusia gaur egungo sistema ekonomikoa berrantolatzeko GEE-k EF eta EE-rekin batera eskaintzen dituen ekarpenak eta proposamenak aztertzea da. Honetarako krisi kapitalistaren testuinguruan kokatuko gara, honen jatorri historikoari erreparatuz, eta hortik abiatuko da analisia.

Esan dezakegu helburua ekonomia kapitalista ordezkatzeko duen eredu integral bat proposatzea dela, sistema honen akatsetatik ikasiz bizitzak erdigunean jartzen dituen eredu ekonomiko bat eraikitzeko. Horretarako, beharrezkoa izango da GEE, EF eta EE era sakon baten aztertzea, hauetako bakoitzak eskaintzen dituen abantaila eta desabantailak ezagutzeko. Dena den, esan beharra dago ekonomia eta enpresa fakultatean ekonomiaren ikuspegi ortodoxoa nabaria dela, eta eredu mota hauek ez direla aipatzen ere ez. Beraz, eredu heterodoxo hauek hobeto ezagutzea eta hauen abantailak baliatzea lan honen beste helburuetako bat izango da.

Azkenik, laneko analisi teorikoan ezagutzak praktikara eramanez eta egun REAS Euskadi erakundearen ikuspegi heterodoxo hauek duten papera aztertzea da gure asmoa. Honekin hirur ikuspegi hauek elkar elikatzen direla frogatu nahi dugu, bestelako eredu ekonomiko bat eraikitzea posiblea dela, hain zuzen ere.

Metodologia eta lanaren egitura

Behin helburuak finkatuta, hauek betearazteko erabiliko den metodologia azaltzera pasatuko gara. Lana bi zati nagusitan egituratu da, hasteko, oinarritzat hartuko den arlo teorikoaren azterketa egingo da, eta ondoren, kasu praktiko baten analisia. Arlo teorikoari dagokionez, oinarritzat jotzen dugun testuinguruaren analisia egingo da, eta ondoren, alternatiba gisa aurkezten diren hirur ereduak banaka aztertu eta definituko dira. Nahiz eta arlo teorikoa izan, atal honetan ere esparru bakoitzari dagokion neurri batzuk deskribatu dira, eredu ekonomiko hauen analisisian gehiago sakontzeko

asmotan. Esparru bakoitzari dagozkion neurri zehatzak aipatzeak lanaren bigarren atalean egingo den analisia erraztuko du, ereduaren arteko sinergiak aurkitzea errazagoa izango baita. Atal honetarako erabili diren informazio iturriak anitzak eta mota askotakoak dira; Hegoa eta GEZKI bezalako institutuak eskaintzen dituzten liburu, artikulua eta txostenak oso baliagarriak izan dira gai horietan adituak diren autoreak ezagutzeko, eta gaiaren analisiarekin hasteko. Hortik abiatuta, bestelako datu base, liburu, aldizkari, egunkari eta txosten erabili dira iturri gisa gaiari gehiago sakontzeko.

Bestalde, lan honen bigarren atala REAS Euskadi erakundeak plazaratutako ekonomia solidarioaren printzipioen analisia egitean datza. Honetarako, iturri nagusia REAS erakundea bera izango da. Atal honetan, lehenik eta behin REAS-n jarduna eta bere ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu, horretarako iturria web orrialdean argitaratutako informazioa izango delarik. Ondoren, ekonomia solidarioaren printzipioen analisisira pasatuko gara, honetarako 2011. urtean argitaratutako ekonomia solidarioaren gutuna erabiliko dugu. Egun, printzipio hauek analisisian daude, baina lana egiterako momentuan eskuragarri zeuden bakarrak 2011koak izan dira, beraz, hauetaz baliatu gara analisia egiteko. Honez gain, printzipio hauen irakurketa egiten duten hainbat autore erabili dira iturri gisa, irakurketa sakonago bat lortzeko asmotan.

1. Testuinguruaren analisia

Kapitalismoa, neoliberalismoa eta patriarkatua egungo mundu globalizatu honen ardatz nagusiak dira. Beste ekonomia eredu alternatibo batzuk aurkeztu baino lehen, egungo gizarte zein ekonomiaren testuingurua ezagutzea beharrezkoa da. Horretarako, atal honetan sistema kapitalistaren ezaugarri nagusiak landuko dira, genero ikuspegia ere barneratuz, eta azkenik, kapitala pertsonen beharrezanaren aurretik jartzen duen erreprodukzio-krisiari helduz.

1.1. Sistema ekonomiko kapitalista

Slobodianek esan zuen bezala, neoliberalismoa sistema liberalaren mutazio gisa jaio zen, kapitalismoaren biziraupena helburu nagusi zuena. Neoliberalismo terminoa, lehen aldiz 1938. urteko solasaldi baten erabili zen, liberalismoaren porrot egoerari aurre egiteko mekanismo gisa aurkeztuz. Sobietar Iraultzaren eta Austria-Hungariako Inperioaren erorketaren ondorioz, besteak beste, kapitalismoa arriskuan ikusten zuten; eta hau demokraziatik askatzeko zein babesteko neoliberalismoaren alternatiba aurkeztu zen (Slobodian, 2018, Garcés, 2019an aipatua).

Baina, neoliberalismoa zer den ulertzeko, lehenik eta behin kapitala zer den ulertu behar da. Kapitala botere harreman bat da, non honek ezartzen dituen arauak, betiere eliteen mesedetan. Botere harreman honetatik sortzen da kapitalaren eta bizitzaren arteko dikotomia, gaur egungo sistema ekonomikoak kapitala eta merkatua pertsonen bizitza eta ongizatearen aurretik jartzen baititu. Hortaz, esan dezakegu neoliberalismoan gaur egun jasaten ditugun zapalkuntzak uztartu egiten direla; eta ikusiko dugun bezala, ez dago zapalkuntza bakarra, asko baizik (Goikoetxea, 2020).

Kapitalismoa gizartearen beharrak kontuan hartzen ez dituen etengabeko hazkundera sortzean datza, hazkunde hau Barne Produktu Gordinaren (BPG) bitartez neurtuz. Indize honen bitartez soilik merkatuaren baitan ekoizten dena aberastasun bezala kontsideratuko da, merkantilizaturik ez dagoen baina sistemaren funtzionamendurako beharrezkoa den guztia alde batera utziz (Feminismos Desazkundeak, n.d.). Hau gertatzen da sistema honetan soilik ekonomia produktiboa kontsideratzen delako ekonomia; baina eredu produktibo hori posiblea izateko merkatutik kanpo geratzen diren lan erreproduktiboak ezinbestekoak eta funtsezkoak dira.


Esan beharra dago hamarkadetan zehar kapitalismoaren joerak aldatuz joan direla, azken urteotan industriaren nagusitasunetik finantzen eta globalizazioaren protagonismora pasatuz. Neoliberalismoak ekoizpenaren garrantzia mugatu du, espekulazioaren aurrean, era honetan langileriaren boteretze prozesua mugatuz eta botere harremanak eraikiz. Hau ez da, askotan esaten den bezala, prozesu natural bat izan; eliteen interesak defendatzen dituen estrategia bat baizik, etekinen metatzea bilatzen duena (Aoiz, 2020).

Ekonomia finantzarizatu honen aurrean, argi geratu behar da industria ez dela desagertu, beste leku batera eraman dela baizik. Industriaren birkokapen honetarako jarraitu den estrategia lantegiak langileen antolakuntza ahalmena txikiagoa den lurraldeetan kokatzea izan da. Era honetan lan baldintza are prekarioagoak sortzen dira eta kapitalaren botere harremana gehiago handitzen da (Aoiz, 2020). Eredu neoliberalen prekarizazio hau egiturazkoa da, lanaren, eta ondorioz, langileen ezegonkortasunaren bitartez kapitalaren metaketa bilatuz.

Urte hauetan zehar ekonomiak jasandako globalizazioa nabaria izan da ere, dirua inolako trabarik gabe mugitu baita munduan zehar; honek sufritu dugun eta oraindik sufritu dugun atzeraldi handia ekarri (Larrañaga, 2017). Aurrerago ikusiko dugun moduan, atzeraldiari aurre egiteko hartutako neurriak gizartearengan eragin kaltegarriak izan ditu, batez ere emakumeengan, orokorrean hauen egoera prekarioagoa baita.

Krisi estruktural hau hobeto ulertzeko Credit Suisse bankuak argitaratutako “*Global Wealth Report 2021*” txostena erabiliko dugu. Banku honek mundu mailako aberastasunaren inguruko azterketa bat egiten du, eta bertatik lortutako emaitzak benetan kezkarriak dira. Datu hauen arabera, mundu mailako milioi-dun kopurua 5,2 milioitan handitu zen 2020. urtean, guztira mundu osoan 56,2 milioi milioi-dun egonez. Honek suposatzen du 2020. urteko munduko biztanleria osoaren %0,72a milioi-duna dela. Txosten honetatik eratorritako datuen arabera, esan dezakegu biztanleria osoaren %0,72 horrek mundu osoko aberastasunaren %45,8a kontrolatzen duela. Hortaz, mundu mailako aberastasunaren arrakala handitu da ere, urtez urte kapitala gutxi batzuen eskuetan etengabe metatzen doan heinean biztanleriaren gehiengoa gero eta sakonagoa den krisi baten murgiltzen da. Hurrengo irudia nahiko adierazgarria da, piramide honetan 2020. urteko aberastasunaren banaketa grafikoki ikus dezakegu:

Irudia 1: 2020. urteko mundu mailako aberastasunaren piramidea



Iturria: Credit Suisse Research Institute Global Wealth Report 2021

Credit Suisse bankuarekin lotuta, duela gutxi honen inguruko hainbat albiste publikatu dira, banku hau ustelkeria kasuekin erlazionatzen dituenak. Banku hau suitzarra da, eta herrialde honek paradisu fiskalen artean ospe handia du. Baina, zer da paradisu fiskal bat? Ez dago definizio zehatzik, baina orokorrean atzerriko enpresa edota pertsonentzat zerga-sistema berezi bat ezartzean datza, zerga gutxi edo zergarik ez ordaintzearen bitartez hauen kapitala erakartzeko asmotan. Kapitala mundu osoan zehar mugitzen da, bere balioaren metatzea bilatuz, horregatik paradisu fiskal hauen bitartez kapitalari errentabilitate gehiago ateratzea bilatzen dute. Beraz, paradisu fiskalen helburu nagusia zergen ordainketa saihestea da, kapitalaren etengabeko metaketa bilatuz (Garzón, 2011).

Ongizate-estatu garen heinean zergen ordainketa ezinbestekoa izango da zerbitzu publiko duinak aurrera eramateko, hau baita zergak ordaintzearen helburu nagusia. Zergen ordainketari esker, hezkuntza- edo osasun-zerbitzu publikoak ditugu, gizartearen ongizaterako ezinbestekoak direnak. Zerga-sistema progresiboa da herrialde gehienetan ezarrita dagoena, hau da, ordaindu beharreko kopurua gaitasun ekonomikoarekiko proportzionalki hasten da. Sistema neoliberalak, aurreko paragrafoan aipatu dugun bezala, aberatsei zergak ekiditeko aukerak eskaintzen dizkie. Era honetan, politika neoliberalen bitartez, zerbitzu publikoen pribatizazio estrategiak bultzatzen dira, gutxi batzuen mesedetan eta gizartearen gehiengoaren ongizatearen kaltetan.

Pandemia egoerak agerian utzi du politika neoliberal hauek pertsonen bizitzetan duten eragin kaltegarria, honen adibide argia da Osakidetza osasun sistema publikoaren kudeaketa eredu. Osasun sistema publiko batek bizitzak erdigunean jarri beharko lituzke; eta hortaz, kontraesankorra da hau politika neoliberalen bitartez kudeatzea. Osakidetza eredu komunitarioa alde batera utzi eta kudeaketa gastuen murrizketan oinarritu da, era honetan, gure osasuna arriskuan jarriz etekin ekonomiko handiena ateratzeko asmotan. Eredu neoliberalaren ondorioak argiak dira: osasun sistemaren pribatizazioa, politika enpresarialen erabilpena, osasun langileen eskubideen murrizketa eta zerbitzuaren kalitatearen murrizketa (Garzón, Celada eta Altamirano, 2022). Onartezina da zaintzan oinarrituta egon beharko litzatekeen sistema publiko bat politika neoliberaletan oinarritzea, gure osasuna eta gure bizitzak arriskuan jarriz.

Bestalde, mundu mailan ematen ari den krisi klimatikoa ezin dugu ukatu, gizarte osoaren bizitzak arriskuan jartzen dituena. Klima Aldaketari Buruzko Gobernu Arteko Taldeak bere azken txostenean krisi klimatikoaren eraginak aztertu ditu, jada mundu mailako milioika pertsonen bizitzetan honen eraginak begi bistakoak direlako. Munduko toki askotan elikagai eta ur gabeziak sufritzen dituzte, ematen ari diren uholde, lehorte edota tenperatura jasanezinen ondorioz. Honen aurrean berehalako erantzun bat beharrezkoa dela salatzen dute, berotegi-efektuko gasen murrizketa bat ekartzen duena.

Honen harira, aipagarria da mundu mailako 20 enpresek kontzentratzen dutela metano eta karbono dioxidoaren igorpenen %35a, The Guardianek 2019. urtean egindako azterketa baten arabera. Honek argi erakusten du kontsumitzaileek eta enpresek ez dutela erantzukizun berbera krisi klimatiko honetan, eta gehien kutsatzen dutenen emisioak murrizteko neurriak hartu behar direla. Pertsona batzuk krisi klimatiko honen aurrean beste batzuk baino zaurgarriagoak izango dira, historikoki eman diren desberdintasun anitzen ondorioz; eta hau kontuan hartu beharko litzateke zaurgarrienen bizitzak defendatzen dituen erantzun bat ematerako orduan. Enpresen interes ekonomikoen aurretik mundua eta honen biztanleen bizitzak defendatzen dituen politiken aldeko apustua egin behar da, hori baita mundua aurrera ateratzeko era bakarra.

Azkenik, ondoriozta dezakegu garai baten alternatiba moduan aurkeztu zen eredu neoliberalak soilik gutxi batzuen aberastasuna era izugarrian metatzea ahalbidetu badu ere, munduko populazioaren zati esanguratsu baten pobrezia, zapalkuntza eta bazterkeria eragin dituela. Honek krisi eszenatoki batera eramaten gaitu, baina ez krisi ekonomiko batera, askotan entzuten den bezala. Mundua krisi ekologiko batean barneratuta dago, eta munduko toki askotan elikagai-krisi baten ere (Arin, 2017). Honez gain, zaintza eredu ere krisian dago, zaintza lanak ezkutuan mantendu nahi dira, baina aldi berean beharrezkoak dira sistemaren biziraupena bermatu ahal izateko (Carrasco, Borderías eta Torns, 2011). Hau guztia kontuan izanda, ezin dugu soilik krisi ekonomiko bati buruz hitz egin, krisi sozial edo bizitzaren krisiaz hitz egin behar dugu, eta hau izango da lan honek oinarritzat hartuko duen testuingurua.

1.2. Kapitalismo patriarkala

Lehenik eta behin argi geratu behar da eredu ekonomiko hau ez dela neutrala, eta hortaz, pertsona guztiek ez dutela kontrol berbera izango sistemaren baitan. Pertsonen generoaren, klasearen, adinaren edota etniaren arabera (beste batzuen artean) gizartean duten botere-maila desberdina izango da. Atal honetan kapitalismo patriarkalean zentratuko gara, generoaren ikuspegitik ematen diren zapalkuntza desberdinak aztertuz, egungo krisi egoera ulertzeko beharrezkoak direnak.

Egungo gizartea sistema kapitalista eta heteropatriarkalean oinarritzen da, pertsonen arteko botereen banaketa ezberdina izanez. Bi sistema hauen artean aliantza bat ematen da, elkarrekin lanean bi sistemen hegemoniaren biziraupena bilatuz. Hau da, gizonen eta emakumeen arteko mendekotasun harreman hierarkizatuen gainean eraiki da kapitalismoa, eta hortik sortzen dira sistema kapitalistaren baitan ematen diren erlazio patriarkalak.

Honez gain, sistema kapitalistak eremu pribatura baztertu ditu ordaindu gabeko zaintza lanak, badaude ere eremu publikoan jarduten duten soldatapeko zaintza lanak, baina hauei emandako balioa oso txikia da eta lan hauek jasaten duten prekarizazio egoera ukaezina da. Hala nola, eremu publiko zein pribatuan, helburua beti diru etekin pribatua metatzea da, bizitza arriskuan jarriz. Bizinari, aldiz, eremu pribatuan ematen zaio garrantzia, hala nola, feminizatuta dagoen eta

ikusezina den arloan (Mugarik gabe, 2017). Genero ezberdintasun hauek kasu gehienetan emakumeen esplotazioa dakarte, eta ezberdintasun hauek are larriagoak eta handiagoak izan daitezke beste faktore batzuk kontuan hartu ezkerro (etnia, arraza, adina...).

1.2.1. Zapalkuntza hirukoitza

Labur bada ere, euskal emakumeek lan merkatuan izandako bilakaera aipatzea gustatuko litzaidake, hauek sufritzen duten zapalkuntza hirukoitza plazaratuz. Euskaldunak eta langileak garen heinean zapalduak garelako, baina honez gain emakume izate hutsagatik genero zapalkuntza ere sufritzen dugulako.

Antzinako erregimeneko euskal jendartearen testuingurua gaur egungoaren oso desberdina zen; euskaldunak ziren, euskaraz mintzatzen ziren eta ekonomia eredia geldoa zen. Kapitalismoaren helmugarekin, egitura guzti hauek desegituratu ziren etxea, lurra eta ekoizpen bitartekoak ostu zizkien eta merkatua eta soldatapeko lana ezarri ziren. Era honetan kapitalismoak lana, lan merkatua eta lan harremanak sexuaren arabera berrantolatu zituen, emakume langileei langile izaera kenduz eta emakume menderatuak izatera zigortuz (Valero, 2019).

Euskal emakume langileentzat kapitalismoaren ezarpena atzerapauso galanta izan zen, egun batetik bestera sistemagatik baztertuak ikusi zirelarik. Adibide honekin argi geratzen da kapitalismoa patriarkala izan zela errotik, eta testuingurua aztertzerakoan ezin dugula ezaugarri hau ukatu.

1.2.2. Sexuaren arabeko lan banaketa

Atal honetan emakumeek lan arloan sufritzen dugun diskriminazioa landuko dugu, lan ezberdinen banaketan edota lan ezberdinei egokitzen zaien balioan desoreka handiak baitaude emakume eta gizonezkoen artean. Sexuaren arabeko lan banaketa sistema kapitalista patriarkalak inposatzen du; genero rolen arabeko zereginen banaketa egiten da, produkzioa erdigunean jarriz eta zaintza zein erreproduzioarekin lotura duten lanak emakumeei esleituz. Honek gure lan egoera eta lan baldintzak guztiz baldintzatzen ditu, eta hortaz, gure bizitzak ere. Sistema honetan lan batek balio soziala galtzen du emakume batek egiten duenean, sistemak hala nahi duelako; era honetan emakume eta gizonezkoen arteko aldea sortuz eta emakumeek sufritzen ditugun baldintza kaskarragoak, soldata baxuagoak eta aldi baterakortasun handiagoa justifikatuz (Etxeberria, 2019).

Mertxe Larrañagaren hitzetan⁴, azken urteotan sexuaren arabeko lan banaketa moldatu egin da, baina oraindik presente dago merkatu zein etxeetan. Merkatuari dagokionez, lanbide askotan oraindik ez dago emakume eta gizonezkoen arteko orekarik, guztiz feminizatutako edo

⁴ <https://www.berria.eus/paperekoa/1855/003/001/2019-03-06/lan-banaketa-sexuala-indarrean-dago-etxean-eta-merkatuan.htm>

maskulinizatutako sektoreak izanez. Baina ez hori bakarrik, gehienetan sektore feminizatutako arduradunak gizonezkoak izaten dira, hau, soldata arrakalaren isla izanik. Hala ere, oraindik badaude banaketa klasikoaren aztarnak, emakumeen parte hartzea lan merkatuetan gizonena baino baxuagoa baita, batez ere adin batetik gorako andreen kasuan (Asensio, 2019).

Datuei erreparatuz, 2021. urtean lan ordainduei dagokionez EAE-ko 16-64 urte bitarteko emakumezkoen enplegu-tasa⁵ %64,8koa izan zen, gizonezkoena %70,6koa zen bitartean. Lan ordaindian genero arteko desoreka ia 6 puntukoa izanik. Desoreka hau sektoreen arabera aztertzen badugu, batez ere nabarmena da hezkuntza, osasun, gizarte-zerbitzu eta industria sektoreetan.

Lan ez ordainduei dagokionez⁶, 2018. urteko etxeko lanaren (umeen edota adinekoen zaintza, arropa, janaria, etxearen zaintza...) %67,2a emakumeek egiten zuten, gizonezkoen ehuneko bikoiztuz (%32,8). Gainera, datu hauek aztertutako aurreko aldiarenak baino larriagoak dira, 2013. urtean emakumeen ehuneko 66,7koa baitzen. Lan banaketa hau okupatuaren artean aztertzen bada ere, emakume okupatuek gizon okupatuek baino denbora gehiago ematen dute pertsonen zaintzan edota etxeko lanetan. Aipatzekoa da ere emakumeek egiten duten ordaindu gabeko etxeko lana BPGren %18,6a dela, eta gizonezkoena berriz, %9,1koa, hau da, datu hau bikoiztu egiten dute emakumeek.

Datu hauek benetan kezagarriak dira, eta egiturazko arazo baten isla dira. Ezinezkoa da arazo estruktural honekin amaitzea sistema kapitalista patriarkala zalantzan jarri gabe, sistema honek sostengatzen baitu bizitza eredu hau.

1.3. Erreprodukzio-krisia

Aurretik aipatu dugun bezala, krisia aipatzean ez diogu merkatuen egoera koiunturalari erreferentziarik egiten, gizartearen eta egungo kapitalismoaren eredu produktiboaren arteko harreman estrukturalari baizik. Jendartearen bizitza mutur egoera baten aurkitzen da, eta honek bizitzak arriskuan jartzen dituen eredu ekonomikoaren azterketa kritiko bat eskatzen du. Ezin dugu soilik pobrezia, langabezia edota prekariedade indizeei erreparatu, arazoa askoz sakonagoa eta larriagoa baita, eta ondorioz, erantzun estruktural bat behar du (Quiroga, 2010).

Erreprodukzio-krisia aipatzean, bizitzaren krisiaz ari gara, gaur egun munduko biztanleria gehiena ziurgabetasun egoera baten aurkitzen baita, ez dakitelako bizitza duin bat eramateko

⁵ Eustat. *Euskal AEn 16-64 urte bitarteko biztanleen enplegu-tasa, hiruhilekoaren arabera lurralde historikoari, sexuari eta adinari jarraiki (%) (1). 2021/IV*

⁶ Eustat. (2021/03/05) *Euskal AEn emakumeek zaintzen eta etxeko lanen % 67,2 betetzen dituzte.* https://eu.eustat.eus/elementos/euskal-aen-emakumeek-zaintzen-eta-etxeko-lanen-672-betetzen-dituzte-/not0018351_e.html

bitartekoak izango dituzten. Erreproduzio-krisi honek gizarte kapitalista eta kapitalismo finantzarizatu honetan arazo larriak daudela erakusten digu (Fraser, 2016).

Sistema kapitalistak ez ditu kontuan hartzen gizakiak, izaeraz, dituen behar sozial, pertsonal edota erreproduktiboak; eta aurretik ikusi dugun bezala ez die hauekin lotutako zereginari erreparatzen. Hortaz, lan hauek beharrezkoak direnez, gehienetan emakumeek (gizartean duten rola dela eta) bere gain hartzen dituzte eta sistema lan hauetaz baliatzen da (sistemaren biziraupenerako beharrezkoak baitira) baina emakumeei ez dizkie lan horiek aitortzen (Herrero, 2012). Honen ondorioz, kontraesan handi bat sortzen da erreproduzio sozial eta kapitalismoaren artean, alde batetik erreproduzio soziala eta bizitza duina aurkitzen direlarik, eta bestetik, kapitalaren metatze mugagabea. Lehentasunak ez soilik ezberdinak, aurkakoak dira, eta hortaz, bi ideia hauek bateraezinak dira.

Aipatutako guztia kontuan hartuta, ondoriozta dezakegu ezinbestekoa dela beste eredu ekonomiko eta gizarte eredu bat eraikitzea, emakumeek gizartean duten rola aldaketa ekartzen duena eta gizartearen behar sozial, pertsonal eta erreproduktiboak kontuan hartzen dituen (Pérez Orozco, 2014). Laneko hurrengo ataletan eredu alternatibo honen ideian sakonduko da, eredu kritiko ezberdinak aztertuz.

2. Gizarte Ekonomia Eraldatzailea

Aipatu berri dugun erreproduzio-krisia dela eta, munduko lurralde askotan giza garapenaren aldeko apustua egin da, giza gaitasun pertsonal zein kolektiboetan oinarrituz harreman sozial eta ekonomikoen beste eredu bat sortuz (Guridi eta P. de Mendiguren, 2014). Lankidetzaren ondorioz sortutako eredu bat GEE da, ekonomia ulertzeko beste era bat aurkezten duena. GEE bezala izendatu dugu guk, baina ekonomia sozial edo solidario izenengatik ere da ezaguna, aurrerago aipatuko dugun bezala korrante anitzak dituen eredu bat baita. Ekonomia ulertzeko eredu alternatibo honetan sakontzeko, ekonomia soziala eta ekonomia solidarioa banaka aztertuko ditugu, hauen jatorria, bilakaera historikoa, korrante ezberdinak eta ezaugarri nagusiak aztertuz, besteak beste.

2.1. Ekonomia soziala

2.1.1. Jatorria eta bilakaera historikoa

Ekonomia sozialak XIX. mendeko korrante ideologikoetan du jatorria, merkatuak eta estatuak asetzen ez zituzten gabezia eta beharrezko erantzuteko helburuarekin langileek kooperatibismoan oinarritutako antolamendu era berriak sortu zituztenean. Kooperatibak, langile elkarteak eta aurrezki, mailegu eta aseguru mutualitateak sortu zituzten, besteak beste. Honez gain, mugimendu honek dimentsio soziokultural bat ere bazuen, helburu berdina eta identitate

kolektiboa zuen talde baten parte izatea, kapitalismoarekiko haustura bilatzen zuena (Guridi eta P. de Mendiguren, 2014).

Esan bezala, ekonomia soziala kooperatibismoan oinarritutako eredu bat da, eta ondorioz, interesgarria izan daiteke mugimendu honen sorreran sakontzea. Mugimendu kooperatibista, gaur egun ezagutzen dugun bezala, artisau talde baten eskutik sortu zen 1844. urtean, Ingalaterran. Talde hau 28 artisauetz osotuta zegoen, kotoi fabrika baten lan egiten zutenak; hauen lan baldintza zein soldatak oso baxuak ziren, eta horregatik beraien baliabideak batu eta batera lan egitea erabaki zuten. Hauen helburua garai horretako kalitate baxuko elikagai zein horniduren aurrean gizarteari prezio eskuragarri baten alternatiba bat eskaintzea zen. Horretarako, kooperatibismo modernoaren lehen enpresa sortu zuten, "*Rochdale Pioneers*" izenagatik ezaguna zena. Beraien printzipio nagusiak gaur egungo kooperatibismoaren isla ziren: bezeroak errespetuz eta zintzotasunez tratatzea, ekarpenen arabera enpresaren irabazietan parte hartzeko eskubidea izatea eta enpresa erabakietan parte hartzeko eskubide demokratikoa izatea (ICA, n.d.).

Hortik aurrera kooperatibismoa herrialde zein sektore desberdinetara zabaldu zen, hain zuzen ere, 1895. urtean Nazioarteko Aliantza Kooperatiboa sortuz, lehen kongresu kooperatiboan. Bertan erakundearen helburu eta printzipio nagusiak ezarri ziren, eta oraindik ere bizirauten du Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak (ICA, n.d.).

Urteetan zehar ekonomia sozialak gorabeherak izan ditu, presentzia handiko urteak izan ditu, baina adierazgarritasun gutxiko urteak ere. Azpimarratzekoa da XX. mendeko 70. hamarkadatik aurrera Europa, Quebec eta Latinoamerikako hainbat herrialdeetan hedapen nabari bat lortu zuela ekonomia sozialak, krisiaren ondorioz. Enplegu faltak eta lan merkatutik baztertuta izateko arriskuak autoenplegua eta solidaritatearen aldeko dinamikak sortu zituen, egoera berri honi aurre egiteko asmotan (Guridi eta P. de Mendiguren, 2014).

2.1.2. Ezaugarri nagusiak

Ekonomia sozialak kooperatiba, mutua eta elkarte ezberdinak biltzen ditu, hau da, enpresa eredu bat dela esan dezakegu. CEPES⁷-en arabera, ekonomia soziala jarduera ekonomiko eta enpresarial ezberdinen multzoa da, esparru pribatuan interes orokor publiko edota soziala bilatzen duena. Nahiz eta ekonomia sozialaren definizio anitz egon, printzipio orokor batzuk finkatuta daude, autore gehienek onartzen dituztenak eta sektorea mugatzeko baliagarriak direnak (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2012):

- Pertsonen eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren aurretik egon beharko da.
- Atxikimendua irekia eta boluntarioa izan behar da.
- Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioetan izan ezik) egotea.

⁷ Confederación Empresarial Española de la Economía Social (CEPES)

- Bazkideen interesen eta interes orokorraren defentsa egitea.
- Solidaritate eta erantzukizun printzipioen defentsa egitea.
- Kudeaketa eredia botere publikoekiko autonomo eta independentea izatea.
- Soberakin gehienak garapen jasangarriaren aldeko helburuak, bazkideen interesak eta interes orokorrak asetzeari bideratuta egon behar dira.

Hau da, ekonomia sozialeko erakundeen parte izateko, jarduera ekonomikoa zelan burutzen den kontuan hartu beharko da, eta ez hainbeste jarduera ekonomikoa bera. Garrantzitsuena erakunde hauek printzipio demokratiko eta sozialetan oinarrituta egotea izanik.

Ekonomia sozialaren baitan bi korrante ezberdin ditzakegu, oinarri desberdinak dituztenak baina helburu sozial berbera partekatzen dutenak. Alde batetik *merkatuko korrantea* bereiziko dugu, non erakundeak bazkideen beharrezko asetzeko sortzen diren, kooperatibak edota mutuak korrante honetan barneratuz. Erakunde hauek merkaturian lan egiten dute, bertan produktuak salduz eta baliabideak lortuz; soberakina bazkideen artean banatzeko aukera dute, betiere bakoitzak burututako jardueraren arabera egiten bada (Guridi eta P. de Mendiguren, 2014). Hau da, merkaturiko korrante hau antolaketa demokratikoan eta mozkinen banaketan oinarritzen da.

Bestetik, *merkatutik kanpo* jarduten duten erakundeak ditugu, hauek gehien bat elkarte eta fundazioek osatzen dituztelarik. Hauek hirugarrenei zerbitzuak eskaintzen dizkiete, merkaturian ekoiztu ahal direnak baina prezio ez adierazgarri baten; eta baliabideak batez ere dohaintza, kuota eta dirulaguntzen bitartez lortzen dituztenak. Kasu honetan, soberakinak ezin dira enpresako partaideen artean banatu (Guridi eta P. de Mendiguren, 2014).

Ekonomia soziala sektore anitzetan aritzen da, hala nola, industrian, finantzetan, hezkuntza edota lehen sektorean, besteak beste. Azpimarratzekoa da erakunde mota hauek krisiari aurre egiteko gaitasun handiagoa dutela, askoz hobeto erantzuten baitute enpleguaren mantentzeari (Arin, 2017).

2.1.3. Ekonomia sozialeko erakundeak

Ekonomia sozialeko erakundeek arrazionaltasuna eta aurrerapen soziala bateragarriak direla erakusten dute, eraginkortasun enpresariala eta erantzukizun soziala elkarrekin bizi ahal direnaren isla izanik. Enpresa munduan beste era baten jarduteko erak daudela erakusten digute, kapitalaren maximotzean oinarrituta ez daudenak, eta gizartearen ongizatea ere helburu dutenak.

Lehen aipatu dugun bezala, kooperatiba, mutua, fundazio eta elkarteak dira ekonomia sozialeko erakunde nagusiak, baina CEPES-k sailkapen zehatzago bat egiten du. Aipatutako erakundeez gain, lanbide gune bereziak, gizarteratze enpresak eta arrantzaleen kofradiak ekonomia sozialeko erakunde bezala definitzen ditu. Lanbide gune bereziak eta gizarteratze enpresak merkaturaren baitan jarduten duten erakundeak dira, eta hauen ezaugarri nagusia gizartean baztertuta dauden

edo aukera gutxiago dituzten kolektiboek laguntzea da. Bestalde, arrantzaleen kofradiak irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, arrantzaleen interes ekonomikoak defendatzera bideratuta daudenak. Dena den, ondorengo taulan CEPES-k egiten duen sailkapena ikus dezakegu, erakunde mota bakoitzaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dituena.

Taula 1: Ekonomia sozialaren erakundeak

Erakundeak	Ezaugarri nagusiak
Kooperatibak	<ul style="list-style-type: none"> - Egitura eta funtzionamendu demokratikoak dituzte. - Jarduera printzipio kooperatiboetan oinarrituta: <ul style="list-style-type: none"> o Bazkideen atxikimendua librea eta borondatezkoa da. o Bazkideen parte-hartze ekonomikoa. o Komunitatearen zaintza.
Lan elkarrekin	<ul style="list-style-type: none"> - Kapital sozialaren gehiengoa langileena da. - Langileak enpresaren bazkideak dira, hauen motibazioa sustatuz.
Mutuak	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsonen elkarrekin dira, irabazi-asmorik gabekoak. - Egitura eta funtzionamendu demokratikoak dituzte. - Borondatezko jarduera aseguratzaile bat eskaintzen dute, gizarte-segurantzaren erregimenaren osagarria dena.
Lanbide gune bereziak	<ul style="list-style-type: none"> - Konpromiso soziala lan merkatuan aukera gutxiago dituzten kolektiboekiko. - Langileen > %70 desgaitua izan behar da. - Merkatuaren baitan lan egiten dute.
Gizarteratze enpresak	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntza egitura baina merkataritza forma duten erakundeak. - Gizartean baztertuta dauden kolektiboak lanpostu bat lortzeko aukera eskaintzen dute. - Gizarteratze prozesuan egon behar den langile kopurua autonomia erkidegoen esku dago, baina %30-%60 bitartekoa da. - Irabazien %80a enpresan berrinbertitu behar da.
Arrantzaleen kofradiak	<ul style="list-style-type: none"> - Zuzenbide publikoko korporazio sektorialak dira. - Irabazi-asmorik gabekoak. - Arrantzaleen interes ekonomikoen erakusgarriak, kontsulta organo bezala eta eskumendun administrazioekin lan egiten dutenak. - Kudeaketak bazkideen interes eta beharrezko asetzeko helburua izan behar du, lekuko garapena eta jasangarritasuna sustatuz.
Elkarrekin	<ul style="list-style-type: none"> - Desgaituen mugimenduekin eta baztertuta dauden pertsonen gizarteratzearekin lotuta daude. - Normalean merkatuan jarduten duten enpresek huts egiten duten sektoreetan jarduten dute.
Fundazioak	<ul style="list-style-type: none"> - Irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira, - Hauen ondarea era iraunkor baten interes orokorreko jarduerak burutzera mugatuta.

Iturria: Nik sortutakoa CEPES-ko datuetatik abiatuta

2.2. Ekonomia solidarioa

Ekonomia solidarioa⁸ ekonomia sozialaren enbor komun batetik jaiotzen da, ekonomiaren praktika alternatibo bat aldarrikatuz; eta garapen pertsonal eta komunitarioa sustatzeko bitarteko bezala aurkeztuz (Arrate, 201). Helburu nagusia justizian, kooperazioan, elkarrekikotasunean eta elkarlaguntzan oinarritutako produkzio, banaketa, kontsumo eta finantzazio harremanak eraikitzea da. Kapitalari aurre egin eta ES-k pertsonak eta hauen lana sistema ekonomikoaren erdigunean jartzen ditu, merkatuen rola pertsonen ongizatea eta bizitzaren erreprodukzioaren zerbitzura egonez (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2012).

Aurretik aipatu dugun bezala, ES-rekin lotura duten saiakera praktikoak prozesu ekonomikoaren esparru guztietan aplikatzen dira. Eremu produktiboari dagokionez, enpresa solidarioen bitartez konfiantzan, solidaritatean eta kooperazioan oinarritutako antolakuntza era alternatiboak eskaintzen ditu. Banaketa arloan, berriz, pertsonen eta lurraldeen arteko bidezko elkartruke harremanak aldarrikatzen ditu, bidezko merkataritza sustatuz. Honetarako, ekonomia solidarioko enpresen produktuak komertzializatu eta banatzeko sareak daude, kontsumo arduratsu, ekologiko, etiko eta solidarioa bilatzen dutenak. Azkenik, arlo finantzarioari dagokionez, finantza etikoen aldeko apustua egiten da. Saiakera desberdinak egin dira honen inguruan, adibidez, banku etikoak existitzen dira, banku tradizionalen zerbitzuak eskaintzen dituztenak baina eraldaketa sozialaren eta etikaren printzipioak jarraituz (Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridi, 2012).

Jada dakigun bezala, enpresarientzat edota ekonomia sozialeko erakundeentzat eredu hau baliagarria izan daiteke ikuspegi eta antolakuntza era berriak ezagutzeko. Baina enpresa munduaz gain, eredu ekonomiko honetan beraien arazo zein beharrezanez aurre egiteko era solidario baten antolatzen diren erakunde, sektore eta talde anitz uztartu egiten dira.

Adibidez, mugimendu ekologistarentzat baliagarria izan daiteke, ingurumenarekin lotutako arazoak eredu ekonomiko eta garapen eredu kapitalistetan jatorria baitute. Bestalde, erakunde publikoak ekonomia solidarioaz baliatu daitezke gizartearen pobrezia aurre egiteko edota jendartearen bizi-baldintzak hobetzeko asmotan politika publikoak sustatuz. Azkenik, erakunde fededun askok ekonomia solidarioaz baliatzen dira beraien ideiekin bat datorren eredu bat baita, garapen sozial eta pertsonala bilatzen duena (Razeto, 2010). Hauek adibide batzuk besterik ez dira, baina ES esparru anitzetan aplikatu daitekeenaren adibide argia da.

⁸ ES aurrerantzean

2.2.1. Ekonomia solidarioaren korronte ezberdinak

Kontzeptualizazio teorikoaren ikuspuntutik bi korronte nagusi daude ES-ren baitan, europarra eta latinoamerikarra. Perez de Mendiguren, Etxezarreta eta Guridiren (2012) arabera, bi korronte hauek gauza anitzetan egiten dute bat, baina ezberdintasun esanguratsuak dituzte ere.

Korronte latinoamerikarraren sorrera 80ko hamarkadan koka dezakegu, Luis Razeto ekonomistaren idazlanetan kontzeptu hau agertu zenean. Honen hedapena sare internazionalen bitartez egin zen, 90. hamarkadan termino honen erabilpena zabaltzerakoan. Korronte honek joera kritiko eta eraldatzaile handia du, ekonomia garaikidea ezaugarritzen duten antolaketa egiturak guztiz eraldatzeko apustua eginez. Ikuspegi kritiko hau, oraindik ere, ES-ren inguruko sare internazionalen bitartez hedatzen da, hauek egindako bilera eta ekitaldietaz baliatuz. Honez gain, topaketa hauek ES Latinoamerikan sustatzeko ekintza planak adosteko erabiltzen dituzte.

Korronte europarrean, bestalde, ES-ren jaiotza eta hedapena ekonomia sozialarekin lotura handia du; eta hortaz, antolaketa egitura eta egitura enpresarial klasikoekin lotuta dago. Aurreko atalean aipatutako kooperatiba, mutualitate eta elkarteek instituzionalizazio prozesu progresibo bat jasan dute beraien sorreratik, kasu batzuetan prozesu honek erakunde hauen funtsezko printzipioak kolokan jarritz. Korronte honen kezka nagusia, egungo ekonomia kapitalistan enpresa eta erakunde hauentzako lekua aurkitzea da, enpresa klasikoekin eta sektore publikoarekin elkar bizi ahal izatea ES-ren printzipioak galdu gabe.

Hortaz, esan dezakegu Europako ekonomia solidarioaren korronteak ikuspegi enpresarial handiagoa duela, eta batez ere enpresa sozialaren terminoan arreta jartzen duela. Bestalde, korronte latinoamerikarra askoz ere kritikoagoa da, eta helburua eta indar guztiak antolaketa egiturak eraldatzera eta ekonomia solidarioaren diskurtsoa zabaltzera bideratzen ditu.

3. Ekonomia Feminista

Ekonomia feminista korronte bat bezala definitu dezakegu, genero ikuspegiaren aldagaia ekonomiaren funtzionamendua azaltzeko erabiltzen duena. Era honetan, emakume eta gizonak eragile ekonomiko gisa merkatuan duten kokapen ezberdina agerira ekarriz (Rodriguez, 2015). Atal honetan, azken urteotan gero eta gehiago garatzen ari den korronte hau aztertuko dugu, emakumeek sufritzen dituzten zapalkuntzak eremu sozio-ekonomikoan duten eragina plazaratzeko. Analisi historiko batetik abiatuz, berdintasunean oinarritutako sistema bat eraikitzeke proposamenak planteatuko dira.

3.1. Ekonomia feministaren sorrera eta hedapena

Ekonomia feminista ez da duela gutxi jaio, historia luze bat dakar bere atzetik, ekonomia zientzia bezala jaio zen momentu beretik existitzen dela esan dezakegu. XIX. mendean emakume talde

batek pentsaera ekonomiko klasikoa eztabaidan jarri eta sexu araberako lan banaketa, emakumeen lan egiteko eskubidea zein soldata arrakalaren arazoak mahaigaineratu zituen. Garai horretan, pentsalari klasikoek ustetan emakumeen tokia etxea zen, eta emakume hauek pentsaera klasiko zein atzerakoi honi aurre egitea erabaki zuten. Emakumeen garaiko egoerak ez zuen pentsalari klasikoek ideiarekin bat egiten, gizonezkoen soldatarekin ez zen nahikoa familia aurrera ateratzeko eta langile-klaseko emakumeek diru-sarrerak behar zituzten. Hortaz, bizitza duin bat eramateko emakumeek lan egin behar zuten, ezin ziren esparru pribatura mugatu. Eztabaida hau feminismoaren lehen boladarekin bat egiten du, honen aldarrikapen nagusia emakumeen eskubideen defentsa zelarik (Carrasco eta Diaz, 2017).

XX. mendean, berriz, feminismoaren bigarren boladarekin batera tradizioen kritika sutua egiten da, tradizioari aurre egiteko ikuspegi teoriko berrien proposamenak eginez. Honek ekonomian eragina izango du, noski, 60. eta 70. hamarkadetan etxeko lanen inguruko eztabaida sortuko delarik. Eztabaida honek EF-ren jarraibideak zehaztuko ditu, EF eraikitzen jarraitzeko beharrezkoak direnak. Hala ere, esan beharra dago EF-ren garapena batez ere azken hiru hamarkadetan eman dela, aurretik emandako pausuak eta eztabaidak aintzat hartuta (Carrasco, 2017).

Etxeko lan ez-ordainduen eztabaidatik abiatuz, gaur egun zaintza lanak bezala ezagutzen dugun kontzeptua jaio zen. Zaintza bizitzaren jasangarritasunerako beharrezko jardura bat izanik, historikoki emakumeek beraien gain hartu duten rol bat izan da. Azken urteotan bizitzaren jasangarritasunaren eztabaidak rol garrantzitsu bat izan du EF-ren diskurtsoan, batez ere mugimendu sozialen aldetik (Carrasco, 2017). Aurreko atalean ikusi dugun bezala, GEE-k ere bizitzaren jasangarritasuna du helburu; hori dela eta, garrantzitsua da ulertzea eredu guzti hauek elkar elikatzen direla.

Ekonomia klasiko eta neoliberalari egindako kritiketatik abiatuz eta azken hamarkadetan egindako lanketa politiko zein teorikoak gehituz, gaur egun EF bezala ezagutzen dugun eredu jaio zen. Testuinguruan aipatu dugun bezala, gogoratu behar dugu ekonomia klasikoak ez dituela inoiz lan ez-ordainduak ekonomian barneratu, ez direlako produkzio kapitalistaren parte. Beste zientzia batzuetan ez bezala, ekonomiak ez ditu EF-ren ekarpenak onartu; hori dela eta, EF eta ekonomia kapitalista paraleloki eta elkar topatu gabe garatu dira hamarkada hauetan zehar. Egun, ekonomia neoliberalismoaren kontrolpean dago; eta hala den bitartean ezinezkoa izango da EF-k plazaratzen dituen pertsonen beharrezko zein problematikak aintzat hartzea (Carrasco, 2014). Hau da, ekonomia ez da feminista izango kapitalista den bitartean.

Laburbilduz, EF-k ekonomia kapitalistak tradizionalki erabili dituen kontzeptu, eredu eta paradigmatik deseraikitzea du helburu, emakume eta gizonen errealitate ezberdinak kontuan hartu eta giza beharrezkoak asetzea oinarrizko helburu duena. Beraz, patriarkatua eta kapitalismoa

eztabaidan jartzen dituen eredu alternatibo bat izanik, ez gara harritu behar egungo ekonomiak eredu hau kontuan hartzen ez duenean, kritikoa den eta alternatiba bat proposatzen duen edozein eredurekin berdina egiten duelako (Carrasco, 2014).


3.2. Ekonomiaren berdefinizioarako EF-ren proposamenak

Orokorrean, esan daiteke EF-k pertsona guztientzako bizitza duin baten alde borrokatzen duela, hau da, bizitza eta kapitalaren arteko gatazkan bizitzaren aldeko apustu sendoa egiten duela. Horretarako, ekonomiaren berdefinizioaren ideia bultzatzen du, ekonomia kapitalista den bitartean bizitzak erdigunean jartzea ezinezko helburu bat izango delako (Carrasco eta Diaz, 2017). Pertsonen bizitzak defendatzen dituen sistema ekonomiko bat eraikitzeko asmotan, hainbat ekarpen edo proposamen egiten ditu EF-k, ondoren aipatuko ditugunak, besteak beste:

a) Merkatuen deszentralizazioa

EF-k merkatuen egitura hierarkikoa kritikatzeko du, honek eremu publikoa eta merkatuen ekonomia aitortzen dituelako etxeko lanak edota zaintza lanak eremu pribatura mugatzen dituen bitartean. Beraz, arlo honetan lan hauek zirkuitu ekonomikoan barneratzearen aldeko apustua egiten da, bizitzaren erreproduktioarako zein lan-indarra lortzeko funtsezko lanak baitira. Hurrengo grafikoan ikus dezakegunez, merkatuko arlo produktiboa zein gizakien arlo erreproduktiboa erlazionatuta eta elkarrekiko menpekoak diren bi esparru dira (Carrasco, 2014).

Irudia 2: Lanaren zirkuitu ekonomikoa



Iturria: Carrasco, 2014

Lan ordainuari esker merkatuan ondasun eta zerbitzu ezberdinak lortzeko beharrezko dirua lortzen da, baina honek ez ditu gizakiaren beharrezko erreproduktiboak asetzen. Hortaz, guztiz beharrezkoa da zaintza eta etxeko lanak burutzeko, ikuspegi ekonomiko batetik hauek burutu ezean

ezin baitira merkatuko behar produktiboak asetu; eta beraz, sistema produktibo kapitalista ezin da sostengatu. Ikuspegi sozial batetik, lan hauek beharrezkoak dira gizaki osasuntsuak izateko, gure gaitasun sozialak garatzeko edota mentalki egonkorak izateko (Rodríguez, 2015). Beraz, ezin dugu ukatu lan hauen garrantzia, merkatu arloan zein arlo sozialean ere. Ondorioz, zer gertatzen da produkzio kapitalistarako beharrezkoak diren lan batzuk eremu pribatuan burutzen badira? Sistema kapitalistak lan hauen kosteak aurrezten dituela, lan-indarra askoz merkeago lortuz eta bere irabaziak biderkatuz, gizakiaren erreprodukzioa negozio bilakatuz.

Merkatuen deszentralizazioarekin jarraituz, EF-k ezinbestekoak diren ondasun batzuen (ura, energia, etab.) kudeaketarako merkatutik kanpo dauden eta lankidetzan zein kolektibitatean oinarritutako ereduak proposatzen ditu. Gizakiaren biziraupenerako beharrezkoak diren ondasunekin negozioa egitea ezin delako onartu. Honez gain, produkzio zein kontsumo egitura eta ohitura berrien aldeko apustua egiten du, ingurumenarekin arduratsuak direnak eta gizakien beharrianak asetzera bideratuta daudenak (Carrasco, 2014). Mugimendu ekologikoa eta mugimendu feminista, elkarrekiko lotura handia duten bi mugimendu dira, baina lan honen 4. atalean sakonduko dugu harreman honetan.

Azken finean, merkatuen deszentralizazioaren proposamenak, jada hainbat alditan aipatu dugun bizitzen jasangarritasuna bilatzen du. Era honetan ekonomia pertsonen zerbitzura egotea lortu daiteke, eta ez pertsonak ekonomiaren zerbitzura, orain gertatzen den bezala.

b) Lan terminoaren berdefinizioa

Aurretik aipatu dugunez, nahiz eta esparru publikoan (merkatuan) emakumeak egon, hau ez da gure lehentasunezko esparrutzat jotzen, eta esparru pribatuan (esparru familiarrean) jarduteko pizgarri anitz ditugu. Gizonezkoei, ordea, esparru publikoa lehentasunez egokitzen zaie, eta ez dute pizgarririk esparru pribatuan jarduteko. Testuinguruan (1.2.2 atalean) aipatu ditugu sexu araberako lan banaketaren inguruko datuak, sexu araberako lan banaketa badago, eta horren aurkako neurriak hartzeko lanaren kontzeptua berdefinitu beharko da.

Zertaz ari gara lan terminoaren berdefinizioa aipatzen dugunean? Egun, lan terminoak soilik eremu publikoan, hau da, merkatuan, ematen diren lanak barneratzen ditu. Lan pribatuan ematen diren lan ez-ordainduak ez ditu barneratzen, eta a) atalean ikusi dugun bezala, sistemaren biziraupenerako beharrezkoak diren lanak dira. Lan hauek emakumeei esleitzen zaizkie, sexu araberako lan banaketaren bitartez, eta hau ez da berdinzalea ezta eraginkorra ere. Sexu araberako lan banaketa txikitatik pairatzen dugun diskriminazio mota bat da, genero rolek oztopo handi bat suposatzen dute jaiotzetik, gure hezkuntza erabakiak baldintzatzen dituztenak, eta hortaz, gure lan esparrua ere. Honen ondorioetako bat, zaintza esparrua guztiz feminizatuta egotea da (Pazos, 2017).

Baina, analisi teorikoa alde batera utzita, anitzak dira EF-k lan arloan ematen diren diskriminazioei aurre egiteko aurkezten dituen proposamenak. Borroka nagusia lan eskubide duinen aldekoa da, egun, emakumeek merkatutik kanpo mantentzeko pizgarri anitzak dituztelako, genero araberako diskriminazioaren ondorio. Dena den, zelan finantzatuko dira eskubide hauek? Enpresa kapitalistek langileak behar dituzten bitartean hauen erreprodukzioa ordaindu beharko lukete, adibidez, gizarte segurantzari egindako ekarpen moduan edota irabaziekin lotutako zerga progresiboen bitartez. Noski, eskubide hauek emakume zein gizonezkoentzat izan beharko dira, eta emakumeek lan merkatutik kanpo aritzeko pizgarriak ezabatzea bideratuta egon (Perez Orozco, 2017). Hurrengo atalean hobeto landuko dugu kontziliazioaren auzia, hartu beharreko neurri zehatzak aipatuz.

Nahiz eta lan eskubideen alde borrokatu, gogoratu behar dugu EF-ren helburu nagusia lan terminoaren berdefinizioa dela, era honetan sozialki beharrezkoak diren lan guztiak berrantolatuz, bizitza duin bat lortzeko (Perez Orozco, 2017). Baina, bitartean, lan arloan berdintasuna bultzatzen duten politika publikoen aldeko borrokan jarraituko du EF-k.

c) Kontziliazioaren aldeko neurriak

Aurretik aipatu dugu emakumeek pizgarri anitz dituztela merkatutik kanpo mantentzeko, beraz, egoera honi aurre egiteko beharrezkoa da kontziliazioa bultzatzera bideratuta dauden neurriak ezartzea. Neurri hauek GEE-rekin elkarlanean ezartzea aproposa izan liteke, ekonomia sozial eta solidarioak ere neurri hauek babesten dituelako, eta era honetan egoeraren analisi integralago bat lortuko genukeelako.

Kontziliazioarekin lotutako aldarrikapen edo proposamen nagusia lanaldiaren murrizketa izango litzateke, zergatik? Egunero beharrezkoak diren lan ez-ordainduetan inbertitu behar dugun denbora kontuan hartu eta soberan geratzen zaigun denbora kalkulatzeko badugu, gaur egun legez ezarrita dagoen lanaldia gehiegizkoa dela ondorioztatuko dugulako. Baina, ekonomista kapitalistek esaten dutenaren kontra, lanaldiaren murrizketa ez litzateke soldaten murrizketa batekin lotuta egon beharko. Soldatetan, bestalde, soldata minimoak igo beharko dira, eta soldata maximoak ezarri (Perez Orozco, 2017). Era honetan, benetako berdintasunaren aldeko neurriak hartzen dira eta aberastasunaren banaketa bidezkoago bat lortzen da.

Kontziliazioaren alde hartu daitekeen beste neurri bat lan erreproduktiboetarako estrategikoak diren zerbitzu publikoen indartzea izango litzateke. Adibidez, haur hezkuntzarako eskubide unibertsala jaiotzetik ziurtatzea (Pazos, 2017). Egun, 0-3 urte bitarteko ume guztiak ez dutelako eskola publikoa ziurtatuta. Honek kontziliazio arazoak suposatzen ditu familietan, askotan amak etxean geratzen direlako, ume hauen zaintzaz arduratzeko (Molina eta Garcia, 2021). Beste askotan, emakumeak kontratatzen dituzte hauen zaintzarako, baldintza prekarioetan. Ondorioz,

esparru erreproduktiboan dauden desberdintasunak murrizteko, arlo honetan neurriak hartzea beharrezkoa da.

Azken finean, neurri hauen helburu nagusia lan erreproduktiboei eskainitako denbora hobeto banatzea eta bizitza duin bat izateko langileen eskubideak hobetzea. EF ez da neurri hauek defendatzen dituen eredu bakarra, hori dela eta, garrantzitsua da neurri hauek beste ekonomia kritiko eta alternatiboekin sortutako kooperazio sareetan aurkeztu eta eztabaidatzea. Hurrengo atalean landuko dugu sare hauek eraikitzearen garrantzia.

d) Beste ekonomia kritiko eta alternatiboekin kooperaziorako sareak eraikitzea

EF-k defendatzen duen beste proposamen bat, beste ekonomia kritiko eta alternatiboekin kooperaziorako sareak eraikitzea da; hala nola, ekonomia sozialarekin, ekonomia solidarioarekin, ekonomia ekologikoarekin, etab. Sare hauetan ekonomia kritiko guztien arteko adostasun eta desadostasunak eztabaidatzen dira, printzipio nagusi batzuk amankomunean dituzten sare sendoak eraikitzeko asmotan. EF-ren partez, zaintza lanek duten balioaren aitortzea eta honen aldeko borroka printzipio funtsezkoa da, hortaz, sare hauetan beharrezkoa izango litzateke zaintza lanak bizitza sostengatzen dutela aitortzea (Carrasco, 2014).

Silvia Federiciren hitzetan⁹, EF-k erreprodukzio lanen garrantzia plazaratu du, ez soilik gure bizitzetarako edota kapitalismorako, ekonomia solidarioak eraikitzeko ere. Prozesu kolektiboetan oinarritutako antolakuntza era autogestionatuak eraikitzeko erreprodukzio-lanak beharrezkoak dira, hortaz, EF-k funtsezko rol bat du prozesu honetan. Helburua, merkatuekiko dugun autonomia maila handitzea, Estatuak gure bizitzetikiko duen kontrola murriztuz (Carrasco eta Diaz, 2017). Beraz, ekonomia kritiko hauek elkar elikatzen direla esan dezakegu, lan honetan zehar aurrerago sakonduko dugu elkar elikatzeko honetan.

e) Genero ikuspegia aurrekontu publikoetan barneratzea

Gizarte berdinzalea eraikitzeko helburuarekin, genero ikuspegia politika publikoetan barneratzea beharrezko auzi bat da. Azkenaldian, EF-k genero ikuspegitik aurrekontu publikoen analisia egitearen garrantzia plazaratu du. Aurrekontu publikoak politika ekonomikoen lehentasunak adierazten dituen tresna bat dira; hortaz, hauek genero ikuspegi batetik aztertzen direnean, emakume eta gizonezkoen arteko berdintasuna lortzeko helburuek politika publikoetan duten integrazio maila ikus dezakegu. Administrazio publikoen lehentasunak aztertzeko, ezinbestekoa da hauei esleitutako baliabide kopuruari erreparatzea, politika publiko bat eraginkorra izateko baliabide ekonomikoak behar dituelako (Jubeto, 2008).

⁹ Silvia Federici-k “V Congreso Estatal de Economía Feminista”-n egindako konferentziatik “Economía Feminista: desafíos, propuestas, alianzas” liburuan, “Economía feminista entre movimientos e instituciones: posibilidades, límites y contradicciones” kapituluan egindako gogoeta.

Beraz, aurrekontuen esleipenak emakume zein gizonezkoen aukera ekonomikoetan duen eragina aztertzean datza, eta genero berdintasuna lortzearen prozesuan eragin negatibo bat suposatzen duten baliabideak berreraiki beharko dira. Aurrekontu mota hauen beste helburu bat, politika sozialen eta ekonomikoen arteko lotura bat eraikitzea da, era honetan kudeaketa finantzario publikoaren efizientzia handituz (Jubeto, 2010).

Ez gara luzatuko analisi hau egiteko erabiltzen diren tresna, metodologia edota adierazleetan, hori ez baita lan honen helburu behinena, baina garrantzitsua iruditzen zait analisi hauen existentziaz jabetzea.

4. Ekonomia Ekologikoa

Lan honetan jorratuko ditugun ereduak bukatzeko, ekonomia ekologikoa landuko dugu, eredu honek EF zein GEE-rekin dituen lotura nabariak direla eta. Azken finean, gure helburu nagusia GEE ikuspuntu feminista eta ekologiko batetik lantzea baita, era honetan egungo ekonomia kapitalistari aurre egiteko eredu integral bat proposatuz.

Ekonomia ekologikoa, beste bi ereduak bezala, ikuspuntu heterodoxo batetik ulertu behar dugu, ez baitu egungo ekonomia ortodoxoaren printzipioekin bat egiten. Honen helburu nagusia ekonomia berregituratzea da, pertsonen bizitzen eta ingurumenaren arteko harreman orekatu bat lortuz. Honetarako, egungo estrategia makroekonomikoak kritikatzeko, hauen helburu bakarria hazkunde ekonomikoa lortzea baita; eta hauek gizartearen zein ingurumenaren beharrezkoak asetu eta zaintzen dituen estrategia sozialengatik ordezkatzeko proposatzen du. Laburbilduz, gainontzeko ereduak bezala, egungo sistemaren indibidualismoa alde batera utzi eta kolektibitatean oinarritutako gizarte eredu duin baten alde borrokatzen du (Barkin eta Lemus 2011).

4.1. Ekonomia ekologikoari hurbilketa planetaren mugetatik abiatuz

Mugak dituen planeta batean ezer ere ezin da etengabe hazi, eta planeta honek mugak baditu, honen baliabideak ez dira agortezinak. Baliabide-iturri ezberdinak daude: berriztaezinak (mugatuta daude) zein berriztagarriak (berez, ez daude mugatuta, baina energia jasotzeko erabiltzen dituzten egitura ezberdinak mugatuta egon daitezke). Honez gain, hondakinak ere ezin dira era mugagabe baten degradatu, eta hortaz, mugatuta dago hauen isurpena ere. Sistema ekonomikoak baliabideak eta energia lortu behar ditu bere biziraupenerako, eta bere jardura ekonomikoaren ondorioz sortutako hondakinak isuri behar ditu ere. Hortaz, sistema ekonomikoa hazkunde mugagabearen oinarritzen bada, bateraezina da mugak dituen planeta batekin (Herrero, 2012).

Kapitalismoan oinarritutako egungo gizarte antolaketa ereduak arriskuan jartzen dute oreka ekologikoa, eta oreka hau da bizitzak sostengatzen dituen, hortaz, arriskuan egon ezker kolapso

ekologiko bat eragin dezake. Klima-aldaketaren auzia gero eta arriskutsuagoa da, honen sakontze eta bizkortzearen ondorioz, beraz, honi aurre egiteko neurriak hartzea premiazkoa izango da (Herrero, 2017).

Krisi egoera kritiko honen aurrean, ekonomia berrantolatzea beharrezkoa eta ezinbestekoa da, bidezkoa eta jasangarria den eredu ekonomiko baten aldeko apustu sendoa eginez. Beharrezko eraldaketa hau ez da kapitalismoaren eskutik etorriko, kapitalismoak soilik adierazle ekonomikoetan jartzen duelako arreta, eta adierazle hauek ez dute inoiz bizitzak sostengatzeko beharrezkoak diren dependentzia materialak aintzat hartuko (Herrero, 2016). Testuinguruan aipatu dugun bezala, enpresa kapitalistak auzi klimatikoaren erantzule nagusiak dira, beraz, izan daitezke arazoaren erantzule nagusiak egoera hau konponduko dutenak? Erantzuna argia da, ez.

Enpresa kapitalistek, azken urteotan jasangarritasunaren auzia marketin estrategiak aurrera eramateko erabili dute, jasangarritasunaren esanahia guztiz hustuz. Estrategia hau aurrera eramaten duten enpresen artean Endesa, Repsol edota Iberdrola daude, enpresa handi guztiek jasangarriak bezala izendatzen baitute haien burua. Zer lortu nahi dute honekin? Enpresek bi helburu nagusi dituzte izendapen honekin: batetik, ekologismo faltsuaren lelopean bezero berriak erakartzea, eta bestetik, politika berdeei bideratuta dagoen diru publikoa erakartzea. Arazoa da, enpresa hauek “politika berdeak” negozio hutsa bilakatzen dituztela, eta ez direla benetako aldaketa baterako baliagarriak. Gehienetan, “politika berde” hauek kontsumitzaileen erabakiak aldatzera bideratuta daude, adibidez, estrategia publizitario baten bitartez beraien ‘eco’ produktu lerro berria erosi ezker (gainera prezio garestiago baten, beraien irabaziak biderkatzeko) planeta aldatzen ari garela sinestarazten digute. Hau da, inolako errotiko aldaketarik gabe, soilik kontsumo erabaki baten bidez, mundua aldatzen ari garela sinestarazten digute, eta hau, noski, ez da gertatzen (Castro, 2021).

Krisi sozial eta ekologikoan negozio aukera bat ikusten dute eta ez dute arazoaren garrantzia ulertzen; horregatik, errotiko aldaketa bat beharrezkoa da, krisi ekologikoa ere estrukturala baita. Enpresek haien materia edo energiaren erabilera eta hondakinen isurtzea murrizteko ezer ez egiten duten bitartean, planetaren etorkizuna soilik gure esku dagoela sinestarazi nahi digute. Eskuak garbitzen dituzte, ez dituzte haien erantzukizunak onartzen eta negozioa egiteko aukera paregabea ikusten dute. Guk kontsumo aldaketak egiten ditugun eta gehiago pobretzen ari garen bitartean, haiek irabaziak biderkatzen dituzte, eta gainera, benetako aldaketarik egin gabe jasangarriak direnaren etiketa irabazten dute.

Hau guztia kontuan izanda, ziurta dezakegu EE-k ez duela ‘kapitalismo berdea’-n sinesten eta benetako aldaketak emateko jasangarriak diren eta bidezkoak diren ekonomia alternatiboen aldeko apustua egiten duela. Mugak dituen planeta honetan energia eta baliabideen erauzketa murriztu behar da, hondakin askoz gutxiago sortzearekin batera. Ekonomia biosferaren mugetara

egokitu behar da, biosfera ezin baita ekonomia kapitalistaren hazkunde mugagabera egokitu (Herrero, 2012).

4.2. Ekofeminismoa: ekologismoa ikuspegi feminista batetik landuz

Orain arte esan bezala, EF eta EE ekonomia kritikoaren bi ikuspegi heterodoxo dira, ekonomiaren berrantolaketa bat proposatzen dutenak. Baina, zein da bi ikuspegi hauek batera lantzearen garrantzia? Sistema ekonomiko kapitalista gizakiek bizirauteko dituzten bi dependentzia material kontuan izan gabe hedatu egin da. Lehen dependentzia, ingurumena eta bere mugak izango litzateke: kapitalismoak muga hauek ez ditu aintzat hartzen, eta ingurumena arrisku larrian aurkitzen da honen ondorioz. Bigarrena, bizitzaren zaugarritasuna izango litzateke: gizaki moduan zaintza behar dugu, erreprodukzio-lanak ezinbestekoak dira gure biziraupenerako. Kapitalismoak ez ditu beharrian hauek kontuan hartzen, eta are gehiago, gutxietsi egiten ditu (Herrero, 2017).

Bi dependentzia hauek aintzat hartzen dituzten bi eredu kritiko EE eta EF dira, eta hortik jaio egiten da ekofeminismoaren idea. EE-k ingurumenean jartzen du fokua, lur planetaren baliabide mugatu eta hazkundean oinarritutako sistema ekonomikoaren arteko gatazka plazaratuz. EF-k, bestalde, bizitzari ematen dio garrantzia, hala nola, bizitza hau posible egiten duten erreprodukzio lanetan eta generoaren arabera ematen diren ezberdintasun ekonomiko estrukturaletan jartzen du fokua. Beraz, bi eredu hauek gizakiaren biziraupenerako beharrezkoak diren baina pentsamendu hegemonikoak gutxietsi dituen prozesu edota subjektuak lehen lerroa ekartzen ditu, hauen balioa aitortuz (Herrero, 2016). Bi ekonomia hauek elkarrekin lan egitean, eredu ekonomiko kapitalistaren arazoen analisi sakonago bat egingo dugu, gure analisi teoriko, politiko eta ekonomikoa aberastuz.

Ekofeminismoan bi korrante daudela esan dezakegu: korrante espiritualista eta korrante konstruktibista. Lehen korranteak emakume eta naturaren artean berezko lotura berezi bat dagoela defendatzen du. Bigarrenak, ordea, emakume eta naturaren arteko harreman estua eraikuntza sozial baten bitartez sortu dela defendatzen du. Gu bigarren korrante honetan zentratuko gara, emakumeen subordinazioa eta naturaren esplotazioa dominazio patriarkalaren eta bizitzaren aurretik kapitalari lehentasuna ematearen ondorio direla uste dugulako (Pascual eta Herrero, 2010).

Kokapen historiko xume bat egitearren, ekologismoaren eta feminismoaren arteko lehen analisi teorikoak 70. hamarkadan eman ziren, Francoise D' Eaubourne-ren "*Feminismo o la muerte*" liburuan ekofeminismo terminoa lehen aldiz agertu zenean. Hamarkada horretan ere hegoaldeko emakume batzuk bizitzaren aldeko manifestazio publikoak egin zituzten, eta hainbat borroka ildo desberdin jaio ziren. Historikoki, emakumeek ingurumenaren defentsan rol garrantzitsu bat jokatu dute, oso argi izan baitute bizirauteko ingurumena zaintzea ezinbestekoa dela. Rol garrantzitsu

hau emakumeek historian zehar jasan duten subordinazio egoeratik dator, hau da, emakume gehienak naturatik, auzotik, etxetik zein ortutik gertuago bizitzera behartuta egon dira. Beraien seme-alaben zaintzaz arduratu dira, eta hauen hornikuntza mantentzeaz ere (Pascual eta Herrero, 2010). Hori dela eta, historikoki kontzientzia ekologiko handia izan dute emakumeek, biziraupenerako ingurumena zaintzearen garrantziaz jabetu dira, zaintzaren eta naturaren artean dagoen harreman estua plazaratuz.

Laburbilduz, ekologismoaren eta feminismoaren arteko lotura argia da, bi mugimendu hauek ekonomiaren berrantolaketa bilatzen dute, sistema kapitalistak ezin baititu sostengatu bi eredu hauen proposamenak. Eredu bakoitzak aldarrikapen propioak ditu, eta horiek ere mantendu behar dira, baina EF-ren proposamenetan ikusi dugun bezala, horietako bat ekonomia alternatibo eta kritikoekin kooperaziorako sareak eraikitzea da. EE eta EF elkar elikatzen direla esan dezakegu, beraz, kooperazioan lan egiteak abantailak ekarriko die bi mugimenduei, sistemari aurre egiteko indarrak batuz.

4.3. Bizitzari eusteko proposamenak¹⁰

Behin ekofeminismoaren garrantzia ulertuta, atal honetan EE-k planetaren jasangarritasunari heltzeko eta ekonomiaren berrantolaketarako egiten dituen hainbat proposamen landuko dira. Baina, analisi sakonago eta aberasgarriago bat lortzeko, ikuspuntu feminista barneratuko dugu proposamen hauetan. Bi dimentsio hauek ezinbestekoak dira ingurumenarekin bateragarria den eta ezberdintasunei aurre egiteko gai den eredu bat eraikitzeko. Batak zein besteak bizitzak erdigunean jartzen dituen eredu ekonomiko baten aldeko apustua egiten du, bizirauteko naturaren garrantzia ere aitortuz. Beraz, trantsizio hau emateko beharrezkoak diren hainbat proposamen edo ideia landuko ditugu hurrengo lerroetan.

a) Ekoizpen-eredu berriak ezarri

Ekoizpen-eredu berriak ezartzea ezinbestekoa da auzi klimatikoari aurre egin ahal izateko, ikusi dugun bezala, planetak ezin du ekoizpen-eredu kapitalista sostengatu; hortaz, eredu alternatiboak ezarri behar dira. Honek ekoizpen-fase ezberdinetan aldaketak suposatuko ditu, eta atal honetan ekoizpen-sistema berri hau definitzeko baliagarriak izango diren lau galdera erantzungo ditugu: zelan, zer, non eta zenbat ekoiztu.

Hasteko, zelan ekoiztuko dugu? Ekonomia zirkuitu “natural” baten arabera antolatzea da proposamena. Ekoizpen-eredu hau ziklikoa, berriztagarria eta hondakinik gabekoa da, energia-iturri bezala eguzki-energia erabiltzen duena. Ekonomia eredu natural honetan prozesu bateko hondakinak ondorengo prozesurako lehengai bihurtzen dira, forma zirkular baten antzera

¹⁰ Atal honetako proposamen eta neurriak lantzeko erabili diren erreferentziak Herrero (2012) eta Herrero (2017) dira.

funtzionatzen duen ziklo baten. Hondakin hauek lehengai bezala erabili ahal izateko beharrezkoa izango da hauek transformatzea, birziklapen prozesu egoki bat jarraituz. Ondorengo irudian ekonomiaren zirkuitu naturalaren fase ezberdinak laburtuta daude, orain hobeto azalduko ditugunak.

Irudia 3: Ekonomiaren zirkuitu naturala



Iturria: Neuk egin a Herrero (2017)-tik abiatuz

Zikloaren lehen pausua, aurreko zikloko hondakinak lehengai natural bihurtzea izango litzateke, ekoizpen jasagarria burutu ahal izateko. Behin lehengai naturalak lortuta, produktua berriro ere diseinatuko litzateke, berrikuntzan oinarrituz ingurumena zaintzen duen produktu bat ekoiztuz. Ondoren, produktuaren banaketa eta kontsumo arduratsua ematen dira. Fase honetan produktua konpondu (behar izatekotan) eta berrerabili egiten da, helburu nagusia produktuen bizitza erabilgarria ahalik eta gehien handitzea izanez. Azkenik, produktuaren bizitza erabilgarria amaitzen denean, era egoki baten birziklatu egiten da, hondakinak berriro ere lehengai bihurtu ahal izateko eta ziklo berri bat hasiz.

Honez gain, zer produzitzen den kontrolatzeko, ekosistemen mantentzearekin bateragarriak diren jarduera eta sektoreak bultzatzea garrantzitsua izango da, adibidez, arrantza jasagarria, energia berriztagarriak, garraio publikoa edota zerbitzu sozial publikoak. Mota hauetako sektore edo jarduera hauetan inbertitzea oso garrantzitsua izango da, produzitzen dena kontrolatu ahal izateko eta jasagarriak diren produktu edota zerbitzuen ekoizpena bultzatzeko. Birziklapena zirkuitu ekonomikoko ezinbesteko atal bat den heinean, birziklapenerako azpiegitura egokietan ere inbertitu beharko litzateke, gizartearentzako kontzientziazio kanpaineekin batera. Era honetan birziklapena era egokian burutzea ziurtatzen dugu, sistema honen arrakastarako beharrezkoa dena.

Bestetik, berotegi-efektuko gasen igorpena murriztea premiazko beharizan bat izanik, ekonomiaren birkokapen bat ematea ere beharrezkoa da. Igorpena murriztu nahi badugu, tokiko ekoizpen zein banaketa bultzatzea ezinbestekoa izango da. Tokiko kontsumo eta ekoizpenak

jasangarriagoak dira, askoz gutxiago kutsatzen dute eta aberastasunaren banaketa bidezkoagoa izaten laguntzen dute. Hortaz, bizitzen aldeko apustua egiteko ezinbestekoa izango da landa eremu anitz berrezartzea, tokiko kontsumoa eta komertzializazio-ziklo laburrak ezarriz.

Azkenik, zenbat ekoiztu ahal dugu? Planetako energia zein material gutxiago kontsumitzea eta hondakin gutxiago sortzearen beharretatik abiatuz, planetaren mugak kontuan hartu beharko ditugu ekoizpena zehazterako orduan. Beraz, arlo honetan eskaria kontrolatzera bideratutako kudeaketa politikak martxan jartzea beharrezkoa izango da, material eta hondakin kopurua murrizteko helburuarekin. Politika hauek pertsona bakoitzaren aztarna ekologikoa kontrolatzera bideratuta daude, pertsona bakoitzeko kontsumo kopuru maximo bat ezarriz.

Atal honetan aipatu diren proposamen guztiak ekoizpen-sistemara mugatu dira, baina arlo honetan proposatutako neurriak ez dira nahikoak. Hurrengo ataletan, egin beharreko beste zenbait aldaketa aipatuko ditugu, ekoizpen-ereduaren aldaketarekin batera eman beharko direnak.

b) Lan ereduaren berrantolaketa

Beste proposamenetako bat lan guztiei eskainitako denboren berrantolaketa izango litzateke. Lan guztiak aipatzen ditugunean, ordaindutako zein ez-ordaindutako lanei egiten diegu erreferentzia, hauei eskainitako denborak berrantolatu ezkerro gizartea era hobe baten antolatu daitekeelako. Hasteko, ordaindutako lan jardunaldia murriztea beharrezkoa izango da, eta, era berean, lan ez-ordainduei eskainitako denbora gizon eta emakumeen artean era orekatu baten banatzea. Arlo honetan, EF-ren ekarpenak nabariak eta oso garrantzitsuak dira, aurretik lan honetako 3.2 atalean aipatu dugun bezala, feminismoak honen inguruko gogoeta handiak egin baititu. Hortaz, ez gara esparru honetan asko luzatuko, baina garrantzitsua da aipatzea EE-k ere honen aldeko apustua egiten duela.

Bestalde, lana berrantolatzera bideratuta dauden gainontzeko neurrien artean, sozialki baliorik sortzen ez duten edo sozialki desiragarriak ez diren sektoreetako lanen desagerpena dago. Lan hauetako batzuk armen fabrikazioa, industria-kutsagarriak edo finantza-burbuila eta eraikuntza-burbuilen ondorioz sortutako lanak izan daitezke. Lan hauek ez dira gizartearentzako beharrezkoak, ez dutelako gizartearentzat baliorik sortzen, ordea, lan hauek burutzen dituzten pertsonak beharrezkoak dira. Ondorioz, lan hauek suntsitzearen neurria berregituratze plan batekin eta laguntza sozialekin batera etorri beharko lirateke, beste eredu produktibo baterako trantsizioa era duin baten egiteko.

Berregituratze plan horren atalik garrantzitsuena gizartearentzat benetan beharrezkoak diren lanei balioa ematea eta hauek ezartzea da. Lan hauek, aurretik aipatu dugun bezala, gizakion biziraupenerako ezinbestekoak dira, eta ondorioz, beharrezkoa da lehen mailako nukleo ekonomiko bihurtzea.

c) Berdintasuna eta aberastasunaren banaketa

Azkenik, mugak dituen eta etengabeko hazkunde ekonomikoa ezinezkoa den planeta batean, aberastasunaren banaketak rol garrantzitsu bat jokatzeko du. Ezinezkoa da herrialde aberatsetako pertsonen kontsumo mailak munduko biztanleria osoari hedatzea, hortaz, beraien bizitza estiloekin ingurumenarekiko presio gehien sortzen dutenen kontsumo mailak era gogor baten murriztu beharko dira.

Birbanaketarako hartu beharreko neurrien artean oinarritzko errenta eta soldata maximoen (3.2 atalean ere aipatu ditugunak) ezarpena egongo litzateke. Helburua gutxi ordaindutako lanpostuen soldata igotzea, eta gehiegi ordainduta dauden lanen soldata murriztea izango litzateke. Honez gain, jabetzaren inguruko neurriak beharrezkoak dira. Egun, bi jabetza mota daude: erabilerari lotutakoa eta metaketari lotutakoa. Metaketari lotutako jabetzak espekulazioa eta etekinen maximotzea bilatzen du, ondorioz, hau mugatu beharko litzateke. Metaketa mugatzeko, ordea, beharrezkoa da banketxeen jarduna kontrolatu eta arautzea, paradisu-fiskalen desagerpenarekin batera. Azkenik, lurraren banaketarekin lotuta, lurra esplotatzen duten nekazaritza industrialari eta espekulatuzaileei lurra kentzea eta nekazaritza sistema ekologikoak ezartzea proposatzen da, tokiko kontsumo jasangarriaren aldeko apustua eginez.

Aberastasunaren birbanaketa egokia egin ezker, gizartearen bizitzeko kalitatea handituko litzateke. Zerga-sistema progresiboen bitartez, aberastasuna zerbitzu publikoak indartzera bideratuta egongo litzateke, eta ez kapitala metatzera, egun gertatzen den bezala. Zerbitzu publikoak indartzen direnean gizartearen bizitza mailak hobetu egiten dira, oinarritzkoak diren zerbitzuetan ematen diren hobekuntzei esker. Honez gain, planetaren mugak errespetatzen dituen aberastasunaren banaketa bat, jasangarriagoa izateaz gain bidezkoagoa izango litzateke ere.

5. Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Behin gizarte ekonomia eraldatzailea, ekonomia feminista eta ekonomia ekologikoa landuta, atal honetan hiru ikuspegi hauen arteko loturak aztertuko ditugu. Honetarako, Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareaz (REAS) baliatuko gara, bertan hiru ikuspuntu hauek uztartu egiten baitira. Sareen sare honek bestelako eredu ekonomiko bat eraikitzeko apustua egiten du, eta ekonomia alternatiboekin dituen harreman estuak direla eta, abiapuntu egokiena iruditu zaigu ikuspegi hauen arteko loturak aztertzeko.

Beraz, lehenik eta behin sare honen ezaugarri nagusiak ezagutuko ditugu: sorrera, helburuak, izaera, funtzionamendua... Ondoren, REAS-n printzipioen irakurketara pasatuko gara, bertan hauen irakurketa feminista eta ekologikoa eginez, lanean zehar aztertu ditugun eredu arteko loturak landuko ditugu. Helburu nagusia krisi multidimentsional honi aurre egiteko gai den eredu

ekonomiko integral bat proposatzea da, ikuspegi ezberdinen arteko desadostasunak gainditzeko gai dena eta pertsonen bizitzak erdigunean jarriko dituen.

5.1. Ezaugarri nagusiak¹¹

REAS (Red de Economía Alternativa y Solidaria), bere izenak esaten duen bezala, estatu mailako ekonomia alternatibo eta solidarioentzako sare bat da. ES-rentzat saretzea funtsezkoa da, multinazionalak izugarritzko boterea dute, eta ondorioz, ekonomia alternatiboek ez dute inolako etorkizunik era indibidualean jarduten badute. Saretze behar horretatik sortzen da REAS, estatu mailan 1995. urtean jaio zen, baina guk landuko dugun REAS Euskadi bi urte geroago sortuko zen. Mugimendu sozial, ekonomiko eta politikoaren baitan kokatzen da sare hau, eta honen helburu nagusia ekonomia solidarioa, ekonomia alternatiboekin elkarlanean, ekonomiaren esparru guztietan ezartzea da. Era honetan, beste erakunde eta plataformekin elkarlanean, egungo sistema sozioekonomikoa eraldatzeko alternatiba ekonomikoak proposatuz.

Izaerari dagokionez, irabazi-asmorik gabeko elkarte da REAS, eta honen parte dira ES-rekin bat egiten duten hainbat kooperatiba, elkarte, laneratzeko enpresak edota sareak, beste batzuen artean. Erakunde hauek helburu amankomun bat dutelako elkartzen dira, jasangarriagoa, zuzenagoa eta inklusiboagoa den ekonomia bat eraikitzearen eta horren parte izatearen helburua.

Sare honen parte izateko bi aukera daude: erakunde bazkidea edo erakunde laguntzailea izatea. Bazkide izateko beharrezkoa izango da ondoren landuko ditugun ES-ren printzipioekin bat egitea, erakundearen proiektua kolektiboa izatea, mozkinen banaketarik ez egitea egin eta proiektuak sareko 2 erakunde bazkideen bermea izatea. Egun, 88 erakunde bazkideek osatzen dute sare hau, sektore ezberdinetakoak eta jarduera ezberdinak burutzen dituztenak, era honetan aniztasuna lortuz. Edonola ere, baldintza guzti hauek betetzen ez direnean edota erakunde kolaboratzaileak beste era bateko konpromisoa hartu nahi duenean, erakunde laguntzaile bihurtzearen aukera dago. Egun, bazkideak ez diren baina REAS Euskadiren jarduna lagundu nahi duten 13 erakunde laguntzaile daude, ematen duten laguntza ez da zertan ekonomikoa izan behar, borondatezko lanarekin ere lagundu dezakete entitate laguntzaileek.

5.2. Ekonomia solidarioaren printzipioen irakurketa

ES bizitzeko era bat bezala ulertu behar dugu, gizartearen eta ingurumenaren biziraupenerako beharrezkoak diren oinarri materialak lortzeko instrumentu bat bezala. Honek, gizakiaren garapen pertsonala zein kolektiboa sustatzen du, erreferentzia bezala gizarte osoak duen bizi-kalitatea eta ongizatea kontuan hartuz. Honetarako, jarduera ekonomikoan balio batzuk txertatzea da bere

¹¹ Atal hau lantzeko REAS Euskadiren web orrialdean eskuragarri dagoen informazioa erabili da. <https://reaseuskadi.eus/eu/nortzuk-gara-reas-euskadi/>

helburu nagusia, ekitatean, justizian, anaitasunean, elkartasun sozialean eta demokrazian oinarrituta daudenak (REAS, 2011).

Baina, ES ez da balio hauek defendatzen dituen bakarra, aurretik egindako analisi teorikotik ondoriozta dezakegu EF eta EE-rekin balio hauetako asko partekatzen dituela. Hortaz, behin eredu guztiak banaka aztertuta, hiru ekonomia hauen artean dauden lotura nabarmenak landuko ditugu. Horretarako Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sareak (REAS) defendatzen dituen printzipio nagusiak erabiliko ditugu, ondorengo lerroetan banaka landuko ditugunak.

- **EKITATEA**

Ekitatea da aipatuko dugun lehen printzipioa, ekonomia solidarioaren 2011ko gutunean funtsezkotzat jotzen da, justizia eta berdintasuna ES-ren sorreraren oinarri direlako. Hala definitzen dute ekitatea gutunean: *“Ekitatearen arabera, pertsona guztiek dute duintasun berbera, eta eskubidea dute menderatze harremanen azpian ez egoteko, beren egoera soziala, generoa, adina, etnia, jatorria, gaitasuna eta abar edozein izanik ere”*. Beraz, argi dago ES-k ekitatea berdintasunarekin lotzen duela, baina, honez gain, desberdintasunen aitortzearekin eta errespetuarekin lotzen du ere.

Printzipio honek historikoki zapalduak izan diren kolektiboek jasaten dituzten diskriminazioei aurre egiteko prozesuarekin lotura handiak ditu, eta ekonomiaren edozein esparruan ekitatearen printzipioa gehitzea ezinbestekotzat jotzen du. Era honetan, ez da zaila izango ekitatearen printzipio hau genero berdintasunaren aldeko borrokarekin lotzea. EF-ren helburu nagusia argia da: emakume eta gizonen arteko harremanetan ekitatea bilatzea, historikoki emakumeek jasan ditugun diskriminazioak onartuz eta hauek gaindituz (Jubeto eta Larrañaga, 2014).

Oraindik asko falta da emakume eta gizonen arteko parekidetasuna lortzeko, hortaz, ezinbestekoa izango da desberdintasun hau onartzea, eta hau gainditzeko neurriak hartzea. Arlo honetan, EF-ren proposamenak argiak dira: lan guztiek aitortpen berbera izatea, enpresen erabakietan zein ordezkari organoetan berdintasuna egotea, soldata-arrakalaren desagerpena eta lan-baldintzen berdintasuna, beste batzuen artean.

Ildo honetatik jarraituz, ES-k hiru proposamen nagusi ditu arlo honetan: aukera berdintasuna, parte-hartzea bermatzea eta gardentasuna. Lehenengoa lanpostuetan parekidetasuna sustatzeaz gain, parekidetasun ekonomikoa bilatzen du; hau da, EF-k defendatzen duen bezala, soldata-arrakalaren desagerpena. Bigarrenak, ordea, erakundean parte-hartzea sustatzearekin lotura du, arlo honetan sor daitezkeen botere-harremanak deseraikiz, EF-k ere defendatzen duen bezala. Azkena, informazio gardentasunarekin eta honen banaketa egokiarekin lotuta dago (REAS, 2011).

Labur esanda, printzipio honen inguruan bi eredu hauek egindako ekarpenetan antzekotasun nabariak aurkitzen direla begi bistakoa da. Hori dela eta, bi ereduak ekarpenak batzerakoan, egoeraren azterketa integral bat lortzen dugula esan dezakegu. ES-k egiten duen printzipio honen irakurketa orokorrari EF-k egindako ekarpenak gehituzkoan, genero dimentsioan sakontzea lortzen da. Dimentsio honetan sakontzea ezinbestekoa da, generoa gizartearen eraldaketa prozesurako ezinbesteko aldagai bat den heinean, ezinbestekoa izango baita erakundeetan genero berdintasunaren aldeko neurriak hartzea.

- **LANA**

Lanari garrantzi handia ematen dio ES-k, ekonomian eta komunitatean parte hartzeko tresna bezala ulertzen baitute, gizartearen bizi-kalitatea baldintzatzen duena. Lanaren giza dimentsioa berreskuratzearen aldeko apustua egiten du, eta pertsonen gaitasunak (sormena, pentsatzeko gaitasuna, komunikatzekoa, taldean lan egitekoa, ikertzekoa...) garatzeko aukera bezala ikusten da. Gaitasun hauek garatzea gizartearen integrazteko modu bat izan daiteke, norbanakoaren autoestimurako zutabe oso garrantzitsua dena. Lanaren beste dimentsio batzuk ere aipatzen dira gutunean, adibidez, lanaren dimentsio sozialean gehienetan emakumeek burutzen dituzten zaintza lanak aitortu eta kontuan hartu behar direla defendatzen du, gure gizartea sostengatzeko lan hauen garrantzia aitortuz (REAS, 2011).

EF-arentzat ere lana funtsezko elementua izan da betidanik, eta aurretik ikusi dugun bezala, bere proposamen gehienak lanaren antolaketa eraldatzera bideratuta daude. Zentzu honetan, gogora ekarri behar dugu EF-ren helburu nagusietako bat teoria ekonomikoak ezkutatu dituen eta bizitzaren iraunkortasuna ahalbidetzen duten lan guztien balioespena dela (Jubeto eta Larrañaga, 2014). Honek bat egiten du ES-k lanaren dimentsio sozialean aldarrikatzen duenarekin, gainera, ekofeminismoaren proposamenetan antzeko aldarrikapenak ikusi ditugu ere. Honez gain, dimentsio ekonomikoari dagokionez, ES-k lan-baldintza duinen eta kalitatezko enpleguaren aldeko aldarrikapena egiten du, lana pertsonen behar ekonomikoak asetzera bideratuta egon behar delako (REAS, 2011). Honi dagokionez, EF-k proposamen hauek berresten ditu ere, baina genero ikuspegian sakondu egiten du, emakume eta gizonezkoen lan baldintzetan dauden ezberdintasunak azpimarratuz.

Egoera honen aurrean, ES-k bere printzipioetan defendatzen duen moduan, genero desberdintasuna gainditzeko neurriak hartu eta demokratikoagoak eta berdintsuak diren egiturak eratu beharko lituzke, honetarako EF-ren proposamenetaz baliatzea aberasgarria izanez (Jubeto eta Larrañaga, 2014).

- **INGURUMENA ETA IRAUNKORTASUNA**

Hirugarren printzipio honetan gure ekoizpen eta ekonomia-jarduera guztiak naturarekin lotuta daudela azpimarratzen da, ondorioz, naturarekin harreman on bat izatea osasungarri bezain aberasgarria da. Horregatik, gizakiaren aztarna ekologikoa murriztearen beharrezan nabarmentzen du, ekoitzi zein kontsumitzeko eredu iraunkor eta ekitatiboak bultzatuz (REAS, 2011).

Ildo honetatik jarraituz, hainbat proposamen plazaratzen ditu 2011ko ES-ren gutunak, alde batetik, gure kontsumo jardunbide eta ohiturek dituzten ondorio ekonomiko eta sozialetaz jabetzea eskatzen du, kontsumo arduratsua sustatzeko asmotan. Honekin lotuta, desazkundera aipatzen du, kontzeptu hau baliabideak modu arrazionalen erabiltzean datza, etengabeko hazkundera bilatzen ez duen ekonomia baten eskutik etorri beharko litzatekeena. Baliabideak modu arrazionalen erabiltzea oso garrantzitsua da, gure kontsumo maila izugarriaren ondorioz, birziklatzea ez baita nahikoa. Ekoizteko era ere aldatu beharko litzateke, energia berriztagarria erabiltzea ezinbestekoa da, aurretik ikusi baitugu enpresen jarduera ekonomikoek ingurumenaren eragin larria (REAS, 2011).

Proposamen guzti hauek EE-ren zein ekofeminismoaren proposamenekin bat egiten dute, eta sarean lan egitearen garrantzia nabarmentzen dute ere. Ekofeminismoak, zehazki, ingurumenaren iraunkortasuna bizitzaren iraunkortasunarekin batzen du, eta planetaren zaintza ezinbesteko ardatz dela nabarmendu. Kapitalismoaren mugarik gabeko ekoizpena gelditzeko indarrak batzea ezinbestekoa da, horretarako ES-k ekologian oinarritzen den sistema ekonomiko bat bultzatzeko erantzukizuna du. Sistema hau bultzatzeko EE-ren zein ekofeminismoaren ekarpenak oso lagungarriak izango dira, gaiaren inguruan egindako hausnarketa, azterketa eta proposamen sakonak direla eta.

- **LANKIDETZA**

Egungo merkatuan ohikoa den lehia bidezko merkataritza harremanengatik ordezkatzeari da printzipio honen helburu nagusia. Honetarako, ezinbestekoa izango da sarearen barneran zein saretik kanpo jarduten duten erakundeekin lankidetzan jardutea, pertsonen eta erakundeen arteko lan kooperatiboa bultzatuz. Lankidetzaren kultura sustatzeak bidezko harreman komertzialak, berdintasuna, gardentasuna eta errespetua ekartzen ditu, beste batzuen artean. Aurretik aipatu dugun bezala, bestelako gizarte-eredu bat eraiki nahi badugu, era kolektiboan jardutea beharrezkoa da, eta elkarri laguntzeko zein elkarrekin hazteko harremanak eraiki beharko ditugu (REAS, 2011).

Jarduera ekonomikoen ikuspegi hegemonikoak lehia behar du sistemaren biziraupenerako, beraien ustetan lehia baita mozkin handiak lortzea eta kapitala etengabe metatzea ahalbidetzen

duen sistema bakarra. Beraz, sistema horretatik kanpo geratzen dira lehiaren logikatik at diharduten jarduera guztiak, eta hauen artean aurkitzen dira biziraupena sustatzen duten harreman sozialak. Harreman sozialetaz ari garenean, gizakiak bizirauteko eta garatzeko duten premia sozialetaz ari gara, giza bizitzaren izaera sozialaz hain zuzen ere (Jubeto eta Larrañaga, 2014).

Aurretik aipatu dugunez, EF-k erreprodukzio lanen garrantzia azpimarratzen du, baita ES-ak eraikitzeke ere. Alternatiboa den ekonomia oro lankidetzan oinarritutako antolakuntza ereduak eraiki beharko lituzke, eta honetarako ezinbestekoa izango da erreprodukzio-lanak aintzat hartzea. Beraz, nabaria da EF-k funtsezko rol bat jokatzen duela saretze prozesu honetan. Laburbilduz, lan honetan landutako hiru ereduak merkatu kapitalista gainditu nahi badute eta giza bizitzei garrantzia ematen dien eredu bat eraiki nahi badute, gizakien zein erakundeen arteko lankidetzari eman beharko diote lehentasuna.

- **IRABAZI ASMORIK GABEKOA IZATEA**

Helburu den ekonomia-ereduak pertsonen garapen integrala, kolektiboa zein banakakoa bilatzen duen heinean, proiektu ekonomikoak era eraginkor baten kudeatu behar dira. Zentzu honetan, 2011ko gutunak jarduera ekonomikotik lortutako irabaziak berriro inbertitu eta banatzearen aldeko apustua egiten du. Era honetan irabazi integral bat lortzen dela esan dezakegu, irabaziak jardueraren xede soziala hobetzera bideratzeaz gain beste proiektu sozial batzuk bultzatzera ere bideratu daitezkeelako. Gure jarduera ekonomikotik sortzen den aberastasuna banatzea beste premietako bat da, arlo honetan irabaziak sozializatzea defendatzen du gutunak, gizartearen zerbitzura egon daitezen. Zer lortzen dugu honekin? Gizarte-eredu sozial, solidario eta ekitatiboak eraikitzeke prozesuan aurrerapauso garrantzitsuak ematea (REAS, 2011).

Printzipio hau EF eta EE-ren printzipioekin bat egiten du ere, emaitza ekonomikoetaz gain, emaitza sozial eta ingurumenekoak kontuan hartzen dituen eredu ekonomiko bat defendatzen baitute. Printzipio honek banakako jokabideak eta norberaren interesak alde batera utzi eta bestelako motibazio eta premia sozial batzuk defendatzen dituen sistema ekonomiko bat defendatzen du (Jubeto eta Larrañaga, 2014). Azken finean, helburua gizarteari kalterik egin gabe irabazi onuragarriak ekarriko dituen jarduera ekonomikoak burutzea dela esan dezakegu.

- **INGURUAREKIKO KONPROMISOA**

Seigarren eta azken printzipioak tokian tokiko garapen iraunkor eta komunitarioa aldarrikatzen du; ondorioz, ekimen solidarioak garatzerakoan ingurune sozialarekin konpromisua izan beharko dute. Horretarako, ezinbestekoa izango da hurbileko beste erakunde batuekin elkarlanean eta lankidetzan aritzea, osatutako sare ezberdinen bitartez. Beraz, printzipio hau lankidetzaren printzipioarekin lotuta dago, lankidetzaren inguruarekiko duten konpromisoa betetzeko bidea bat

baita. Konpromiso honek beste entitate eta kolektibo batzuekin lan egitea eskatzen du, eta ondorioz, aniztasuna egongo denez, tolerantzia oso garrantzitsua izango da (REAS, 2011).

Berriro ere, EF eta EE-k printzipio honekin bat egiten dute. Alde batetik, nabaria da emakumeek haien ingurumenari ematen dieten garrantzia, askotan honen zaintza beraien interesen gainetik jarritz ere (Jubeto eta Larrañaga, 2014). Bestalde, EE-ren proposamenetan ikusi dugu tokiko garapena bultzatzen duten hainbat neurri proposatzen dituztela, ingurumenarekiko duten konpromisoa agerian utziz.

6. Ondorioak

Lanari amaiera emateko, orri guzti hauetan zehar egindako lanketatik ateratako ondorio eta hausnarketa nagusiak aipatuko ditugu. Lanaren hasieran egungo sistema kapitalistaren eta honek eragin duen erreprodukzio-krisiaren analisi bat egin dugu; analisi honetan genero ikuspegia eta ikuspuntu ekologikoa barneratu ditugu ere, batez ere kapitalismo patriarkalaren auzian sakonduz. Analisi honetatik bidezkoagoa den ekonomia eredu bat eraikitzea beharrezkoa dela ondorioztatu dugu, eta beharrian horretatik abiatuz landu ditugu hiru eredu ekonomiko alternatiboak: GEE, EF eta EE. Hauen bitartez ekonomia berdefinitzeko proposamen ezberdinak planteatu dira, baina proposamen integral bat beharrezkoa dela kontsideratu dugu. Beraz, hiru eredu hauen hurbilketa egin da ES-ren printzipioen analisiaren bitartez, hauen analisisan genero ikuspegia eta ikuspuntu ekologikoa barneratuz. Era honetan, integralagoa den eta hiru ereduen proposamenak aintzat hartzen dituen eredu bat lortzea izan da gure helburua. Beraz, behin lanaren nondik norakoak ezagututa, ekarpen pertsonaletara pasatuko gara hurrengo lerroetan.

Egun bizi dugun erreprodukzio-krisia ukaezina da, sistema neoliberalak ez du ingurumena errespetatzen, ezta gizakion beharrian sozialak ere ez. Krisi sistematiko baten bizitzera kondentzen gaituen sistema honen aurrean bizitzen iraunkortasuna defendatzen duten eredu ekonomiko berriak eraikitzea ezinbestekoa da. Honi dagokionez, gizarteari krisi hau estrukturala dela transmititzea erronka bat da, sistema kapitalistak soilik krisi ekonomiko baten aurrean gaudela sinestarazi nahi digulako. Gizartearen artean erreprodukzio-krisi baten aurrean gaudela zabaltzeak eredu ekonomiko egonkor eta parekideak eraikitzeko bidean aurrerapausoak ematea suposatzen du, bizitzak erdigunean jartzen dituen eredu bat izatearen garrantzia eta beharria ulertuko dutelako.

Hau guztia kontuan izanda, guk errotiko aldaketa bat proposatzen dugu, GEE, EF eta EE-n oinarrituta dagoen eredu ekonomiko bat eraikitzea. Eredu bakar bat ez da sistema kapitalistaren gabezia guztiak estaltzeko gai, hortaz, eredu integral bat eraikitzea izan behar da helburu nagusia. Bestalde, errotiko aldaketa bat egitea ez da batere erraza, eta oztopo ugari aurkituko ditugu bidean zehar. Erronka honen aurrean saretzea da gure botere handiena, horregatik nabarmentzen dugu

elkarrekin lan egitearen eta indarrak batzearen garrantzia. Hiru eredu hauek elkar elikatzen dira, besteen beharrezana dute boterea izateko eta benetako aldaketak egin ahal izateko. Sistema kapitalistaren boterea izugarri handia da, beraz, hau garaitzeko gaitasuna izateko ezinbestekoa izango da saretzea.

Saretzearen ildo honetatik jarraituz, GEE-ren azken urteotako hazkundera nabaria izan da, eta eraikitzen dituen sareak handitzen ari dira. Gero eta gehiago dira ekonomia kapitalistatik aldendu eta ekonomia eredu alternatiboen aldeko apustua egiten duten erakunde eta pertsonak. Nabarmenezkoa da ere azken urteotan GEE sektore guztietara heltzeko egin den esfortzua, gizartearengana heltzeko ezinbestekoa baita ekonomiaren esparru guztietan alternatiba solidario eta sozialak aurkitzea. Hau oso garrantzitsua da, pertsonen bizitzak hobetuko dituen eredu bat eraiki nahi badugu pertsona horietatik gertu egon behar garelako, haiengana heltzeko gaitasuna izan behar dugu eta hauen beharrezanek asetzeko gai izan behar gara. Urte hauetan zehar eman diren aurrerapausoek bidezkoa den eredu ekonomiko bat eraikitzea posiblea dela frogatzen dute. Dena den, oraindik lan ugari dugu aurretik, eta kontsumitzaileengana heltzeaz gain, kontsumitzaileek gure eredu alternatiba erreal gisa kontsideratzea izan daiteke oztopo nagusia.

Azken urteotan ere GEE eta EF-ren arteko elkarlan nabarmenak eman dira, eta hau oso aberasgarria izan da GEE-rentzat. Proposamen feministak aintzat hartu eta beraien printzipioetan barneratzeaz gain, teoria hauek praktikara eramanez dituzte ere, beraien erakundeetan ideia eta praktika hauek barneratuz. Zentzu honetan, aipatzekoa da ere egun barne lanketa bat egiten ari direla, eta ikuspegi feministan gehiago sakontzen duten printzipio berriak aterako dituztela. Pena bat izan da lan honetan printzipio hauek ezin barneratu izana, baina garrantzitsu bezain beharrezkoa iruditzen zait lanketa hori egitea. Hau, azken finean, EF-rekiko duten konpromisoaren isla da, eta gaiari ematen dioten garrantzia agerian uzten du. Gainera, harremanak eraikitzeaz gain, harremanak zaintzea ezinbestekoa da, eta etengabeko elkarlanean eta ideiak eraberritzeko ikasketa prozesuan aritzea harreman hauek zaintzeko modu egokiena iruditzen zait.

Bestalde, ingurumenaren auzia gero eta larriagoa da eta egoera honi aurre egiteko neurriak hartzea ez da aukera bat, beharrezan bat baizik. Honetan dabil EE, GEE eta ekofeminismoaren eskutik ere. Egoera honi aurre egiteak funtsezko aldaketak eskatzen ditu gure bizimoduetan, gizakion kontsumo ohiturak aldatzea beharrezkoa da. Aldaketa hauek errealak izateko eta denboran zehar mantentzeko ezinbestekoa da gizartea krisi ekologikoaz jabetzea, eta honen garrantzia ulertzea. Hala ere, erantzukizun guztia ez dago kontsumitzaileen esku, enpresa multinazionalak baitira kontsumismo hau sustatzen dutenak. Kontsumo mota hau sustatzeaz gain, enpresa hauek dira gehien kutsatzen dutenak, beraz, hauen kutsadura mailak kontrolatzeko ere neurriak hartzea ezinbestekoa da. Enpresa hauek duten botere izugarri handia dela eta, erronka hau ez da batere erraza izango.

Instituzioetan ere ikuspegi kapitalista nagusi da, interes alderdikoak edo pertsonalak gizartearen interesen aurretik jartzen dituzte, hortaz, ez dute botere handiena duten enpresen aurkako behar bezalako neurririk hartzen. Zentzu honetan, erronka ez da batere erraza izango, eta instituzioei presioa sartzea ezinbestekoa izango da, hauek baitira enpresa hauen jarduna baldintzatu ahal dutenak. Errotiko aldaketek errotiko neurriak behar dituzte, eta neurri hauek ezin daitezke interes partikularren menpe egon.

Ikusi dugun bezala, hiru ereduak oinarri amankomunak dituzte, eta oinarri hauek gure bizimodua berrantolatzeke erabili nahi dituzte. Sozialki ezinbestekoak diren zaintza lanei garrantzia eman eta gizarte zein ingurumenarentzat kaltegarriak direnak baztertu behar dira. Pertsonen eta ingurumenaren zaintza lehen lerroan egon behar da, gizakion beharrezko kapitalaren gainetik lehentasuna emanez. Honek guztiak sistemaren erdigunean bizitzak jartzen ditu, eta hau da benetako erronka, errotiko aldaketa hau burutzea eta sistemaren erdigunean kapitala egotetik bizitzak egotera pasatzea.

Erraza izan da ekonomia solidarioaren printzipioak ekonomia feminista eta ekologikoaren helburu zein proposamenekin lotzea. Begi bistakoa da hiru ekonomia hauen printzipioak bateragarriak direla, baina teoria hauek ekimen solidarioen bitartez praktikara eramatea izan behar da apustu nagusia. Teoria praktikara eramatean aurkitzen dira zailtasun nagusiak, baina hiru eredu hauek zailtasunak gainditzeko gai ikusten ditut. ES-k badu, bere interes estrategikoak alde batera utzi gabe, EF eta EE-ren premiak asetzeko gaitasuna, eta hau ezinbesteko ezaugarri bat da elkarlanaz ari garenean. Gauza berbera esan dezakegu beste bi ereduengatik inguruan, beraien interes estrategiko propioak alde batera utzi gabe elkarlanean aritzeko gaitasuna dute, eta hau hiru ereduengatik oinarri sozialei esker gertatzen da. Ondorioz, esan dezakegu hiru eredu hauen arteko antzekotasunak ezberdintasunak baino pisu handiagoa dutela, eta bestelako ekonomia eraikitzeke bide berberetik doazela.

Argi dago aipatutako guztiak izugarritzko aldaketak eskatzen dituela, eta askotan utopia bat bezala irudikatzen dela ekonomia alternatibo hori. Baina, lan honetan aipatu ditugun proposamen eta ekarpen guztiek eredu alternatiboak eraikitzea posiblea dela frogatzen dute. Ez da erraza izango, baina ez da ezinezkoa, eta hau lortzeko borrokan jarraitu behar dugu. Lan honetan EF-ren zein EE-ren proposamen zehatzak aipatzeaz gain, proposamen hauek ES-ren proposamenekin bateragarriak direla frogatu dugu. Eredu integral bat eraikitzea posiblea da, giza bizitzak lehen lerroan egotea posiblea da.

Hau guztia kontuan izanda, nabarmendu nahi dugun ideia eredu ekonomiko alternatibo eta integral bat behar dugula da, eta honen eraikitze prozesuan jarraitu behar dugula. Ziur aski oztopoak aurkituko ditugu, baina kooperazioa, zaintza eta elkarlana dira bidea, eta bide horretatik jarraitu behar dugu, oztopoz oztopo.

Bibliografía

- Aioz, Floren (2020). *Mamuari so. Kapitalismoa versus burujabetza*. Txalaparta.
- Arin, Arrate (2017). “Nuevas economías transformadoras”. *GEZKI*, N°14, 2017, 7-60
- Asensio, Maite (2019). “Lan banaketa sexuala indarrean dago, etxean eta merkatuan”. *Berria*. <https://www.berria.eus/paperekoa/1855/003/001/2019-03-06/lan-banaketa-sexuala-indarrean-dago-etxean-eta-merkatuan.htm>
- Barkin, David & Lemus, Blanca (2011). “La Economía Ecológica y Solidaria: Una propuesta frente a nuestra crisis”. *Sustentabilidades*.
- Carrasco, Cristina; Borderías, Cristina, & Torns, Teresa (2011). *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Catarata.
- Carrasco, Cristina (2014). *Con voz propia: la economía feminista como apuesta teórica y política*. La Oveja Roja.
- Carrasco, Cristina (2017). “La economía feminista. Un recorrido a través del concepto de reproducción”. *Ekonomiaz. Revista vasca de economía*, 91: 52- 77.
- Carrasco, Cristina & Díaz, Carme (2017). *Economía feminista: desafíos, propuestas, alianzas*. Entrepueblos.
- Castro, Nazaret (2021). “El capitalismo verde, aunque se vista de verde, insostenible se queda”. *Economiasolidaria.org*. <https://www.economiasolidaria.org/noticias/el-capitalismo-aunque-se-vesta-de-verde-insostenible-se-queda/>
- Cepes. (n.d). “¿Qué es la economía social?”. https://www.cepes.es/social/econ_social_que_es
- Credit Suisse Research Institute (2021). *Global Wealth Report 2021*. Credit Suisse.
- Etxeberria, Elixabete (2019). *Bizitza erdigunean jartzeko urratsak. 9. Urratsa. Sexuen araberako lan banaketatik, elkarrerantzukizunera!* LAB eta Iparhegoa.
- Feminismos dezaskundeak. (n.d). “Pertsonen zainketa, bizitzaren jasangarritasunaren oinarrietako bat. Azterketa eta proposamenak”. *Decrecimiento y buen vivir*, 1: 25-44.
- Fraser, Nancy (2016). “Las contradicciones del capital y los cuidados” *New Left Review* 100. Segunda época. Septiembre – octubre 2016: 111-133
- Garcés, Hernán (2019). “Desde su origen, el neoliberalismo responde a la pregunta de cómo proteger el capitalismo de la democracia”. *ElDiario.es*. https://www.eldiario.es/alternativaseconomicas/neoliberalismo-pregunta-protoger-capitalismo-democracia_132_1606940.html

- Garzón, Alberto (2011). “Paraísos fiscales en la globalización financiera”. *HAOL*, Nº 26: 141-153.
- Garzón, Rafael; Celada, Aitziber & Altamirano, Antón (2022). “Contra el modelo gerencialista y neoliberal en la Atención Primaria de Osakidetza”. *Elsaltodiario.com*.
<https://www.elsaltodiario.com/salud/contra-neoliberal-atencion-primaria-osakidetza>
- Gil, Silvia & Pérez Orozco, Amaia (2016). *Desigualdades a flor de piel: cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y articulaciones políticas*. Emakumeen NBE.
- Goikoetxea, Jule; Lujanbio, Lore; Rodríguez, Zuriñe & Garai, Estitxu. (2020). *Euskal demokrazia patriarkala*. Elkar Argitaletxea.
- Guridi, Luis & P. de Mendiguren, Juan Carlos (2014). *La dimensión económica del Desarrollo Humano Local: la economía social y solidaria*. Hegoa.
- Herrero, Yayo (2012). “Bizitza on batekin bateragarria izango den ekonomia eraikitzeke ikuspegi ekofeministak”. *REAS Euskadi*. Bizitzen iraunkortasuna: 55-68.
- Herrero, Yayo (2016). “Economía feminista y economía ecológica, el diálogo necesario y urgente”. *Revista de Economía Crítica*. Nº 22: 144-161
- Herrero, Yayo (2017). “Economía ecológica y economía feminista: un diálogo necesario”. *EntrePueblos*. Economía feminista: desafíos, propuestas, alianzas :121-142
- ICA (n.d). “Nuestra Historia”. <https://www.ica.coop/es/cooperativas/historia-movimiento-cooperativo>
- IPPC, Working Group II (2022). *Climate Change 2022. Impacts, Adaptation and Vulnerability*. Intergovernmental Panel on Climate Change.
- Jubeto, Yolanda (2008). “Genero ikuspegiko aurrekontuak: politika publikoen ekitatearen aldeko apustu feminista”. *Hegoa Lan Koaderno* 43zk: 5-31
- Jubeto, Yolanda & O’Hagan, Angela (2010). *Los presupuestos públicos con perspectiva de género: propuesta a las instituciones comunitarias sobre el valor añadido de introducir los análisis basados en el género en la política presupuestaria de la UE y sus estados miembros*. Colección eme.
- Jubeto, Yolanda & Larrañaga, Mertxe (2014). “Ekonomia solidarioa izango da, feminista bada. Ekonomia feministak ekonomia solidarioaren eraketan egindako ekarpenak”. *REAS Euskadi*. Bizitzen iraunkortasuna: 13-25

- Molina, Violeta & García, Nacho. “Escuelas infantiles: cuando el nivel de renta impide una educación de 0 a 3 años”. *Epe.es*. <https://www.epe.es/es/sociedad/20211119/educacion-infantil-0-3-anos-conciliacion-12858467>
- Mugarik Gabe (2017). *Bizitza jasangarri eta bidezkoak, Mugarik gaberan apustu*. Creative Commons.
- Pascual, Marta & Herrero, Yayo (2010). “Ecofeminismo, una propuesta para repensar el presente y construir el futuro”. *Boletín ECOS* N.º 10
- Pazos, María (2017). “Apuntes para una economía política feminista”. *Ekonomiaz* N.º 91: 361-384
- Pérez de Mendiguren, Juan Carlos; Etxezarreta, Enekoitz & Guridi, Luis (2012). “Economía Social. Empresa Social y Economía Solidaria: diferentes conceptos para un mismo debate”. *Papeles de Economía Solidaria* N.º 1. REAS.
- Perez Orozco, Amaia (2017). “¿Espacios económicos de subversión feminista?”. *Vientosur*. N.º 150: 111-119
- Quiroga, Natalia (2010). “¿De qué crisis estamos hablando? Cuestionamientos y propuestas a la política de activos desde la economía feminista y la economía social”. *Mentiras y verdades del «capital de los pobres»*. *Perspectivas desde la Economía Social y Solidaria*. Imago Mundi.
- Razeto, Luis (2010). “¿Qué es la economía solidaria?”. *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*. N.º 110: 47-52
- REAS (2011). *Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutuna*. Sareen Sarea.
- Rodríguez, Corina (2010). “Análisis económico para la equidad: los aportes de la economía feminista”. *SaberEs*, 2: 3-22.
- Rodríguez, Corina (2015). “Economía feminista y economía del cuidado: aportes conceptuales para el estudio de la desigualdad”. *Revista Nueva Sociedad*. N.º 256
- Taylor, Matthew & Watss, Jonathan (2019). “Revealed: the 20 firms behind a third of all carbon emissions”. *Theguardian.com*. <https://www.theguardian.com/environment/2019/oct/09/revealed-20-firms-third-carbon-emissions>
- Valero, Oiane (2019). *Euskal Langile Andreak. Antzinako erregimenetik kapitalismora*. Ipes.